



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

# 2021ko JARDUEREN MEMORIA



## AURKEZPENA

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak 2022ko ekainaren 8an egindako bileran onetsi zuen agiri hau. Erakundeei, antolakundeei eta herritar guztiei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2021. urtean egindako jardueren berri ematea da helburua.

Dokumentuaren lehenengo kapituluan, barne-antolaketa deskribatzen da, eta Emakunderen misioa eta ikuspegia adierazten dira. Gainerako edukia Erakundeak jorratzen dituen eremuekin lotutako ataletan egituratuta dago: berdintasun-politika publikoen diseinua, sustapena, koordinazioa, aholkularitza, jarraipena; emakumeen ahalduntzea eta jendartearen parte-hartzea bultzatzea; jendartearen sentsibilizatzea, publiko espezifikoetarako zuzendutako hainbat programa barne; berdintasuna enpresetan; berdintasuna komunikabideetan eta publizitatean; emakumeen aurkako indarkeria matxista; berdintasunerako eskubideen aldeko defentsa sektore pribatuan; eta berdintasun-arloko prestakuntza eta azterlanak.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkio administrazioan eta beste erakunde batzuetan profesionaltasunaren bidez memoria honetan jasotzen diren jarduerak guztiak egiten laguntzen duen pertsona orori, batez ere berdintasuneko teknikariei. Halaber, Emakundeko Zuzendaritzak aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkie Erakundearen lan egiten duten pertsona guztiei, egunero gauzak ondo egiteko gaitasuna eta erakundearen xede eta helburuekiko konpromisoa erakusteagatik.

Eskerrik asko guztioi.



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.



## EAEko gizarte osoaren berdintasun-konpromisoak berraktibatzeke urtea

2021 urtea izan da berdintasun-konpromisoak berraktibatzearena, hala administrazioetan, nola gizarte osoan. Urte osoan zehar, NBE Emakumeak erakundeak Emakumeen IV. Mundu Konferentziaren 25. urteurrena ospatzeko eta berdintasunaren aldeko aurrerapausoak bizkortzeko diseinatutako «Generation Equality» nazioarteko proiektuan lan egin du Emakundek, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Herri Ituna lortzeko. Apirilean, ituna lortzeko proiektua aurkeztu zen jendartean, eta, horretarako, enpresen, elkarten, ikastetxeen, sindikatuen, alderdi politikoaren, fundazioen, unibertsitateen eta, oro har, herritarren esku jarri zen ibilbide bat, erakunde bakoitzak berdintasunarekin konpromiso zehatzak har zitzen.

2021ean, halaber, berretsi egin da EAEko erakunde guztiek indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko konpromisoa, «Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria pairatzen dituzten emakumeei arreta hobea emateko Erakunde arteko Akordioaren» 20. urteurrena ospatuz. Akordioa, 2001ean sinatu eta 2009an eguneratu zen. Koordinazio-tresna funtsezkoa izan da; izan ere, urte hauetan guztietan arreta sistematizatu du, eta arreta hobetzen jarraitzeko balioko duen hirugarren akordio bat onartzeko bidean dago.

Emakundek EAEn soldata-arrakala murrizteko koordinatzen duen strategiaren barruan, soldata-arrakala murrizteko lana ere berraktibatu da, 2021-2025 aldirako ekintza plan operatibo baten bidez.

Eta, era berean, aurrerako urratsak bizkortzeko ildo horretan, Emakundek 18 urtez gidatu duen Nahiko hezkidetzeta-programa berrindartu egin da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Hezkuntza Sailaren arteko aliantzaren bidez, ikastetxe gehiagotara iristeko, eta, ondorioz, haur gehiagorengana, errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak izaten ikas dezaten.

Gainera, Emakundek hainbat arlotan egindako lana saritu dute aurten; izan ere, publizitate sozialeko dokumental onenaren lehen saria jaso du, baita Publifestival Publizitate Sozialaren Nazioarteko Jaialdiak urtero ematen duen publizitate-kanpaina eraginkorrenaren saria ere, besteak beste. Emakundek Madrilan jaso zuen saria, indarkeria pairatu duten emakumeen benetako testigantzen bidez adineko emakumeen aurkako indarkeria ikusaraztea helburu duen «Entzunez gero, ikusiko duzu» kanpainagatik.



# AURKIBIDEA

## AURKEZPENA ..... 2

### 1. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA ..... 6

- 1.1. Egitekoa, ikuspegia, jarduketa-esparruak eta egitura ..... 7
- 1.2. Zuzendaritza Kontseilua ..... 8
- 1.3. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ..... 9
- 1.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana ..... 9
- 1.5. Kudeaketa aurreraturako plan estrategikoa ..... 10
- 1.6. Euskararen erabilera normalizatzeko plana estrategikoa ..... 10
- 1.7. Dirulaguntzen plana ..... 11
- 1.8. Informazioa, gardentasuna eta kontuak ematea ..... 12
- 1.9. Harreman estua gizartearekin ..... 13

### 2. BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK ..... 17

- 2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea ..... 18
- 2.2. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana ..... 19
- 2.3. EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana ..... 20
- 2.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzordea ..... 22
- 2.5. Eusko Jaurilaritzako sailekin elkarlanean aritzeko ildoak eta proiektuak ..... 23
- 2.6. Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa ..... 25
- 2.7. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakundearteko batzordea ..... 26
- 2.8. Lankidetzeta-proiektuak EUDELekin ..... 27
- 2.9. Udallerri, kuadrillei eta mankomunitateei zuzendutako dirulaguntzak ..... 31
- 2.10. Berdintasun-planak: txostenak eta aholkularitza ..... 31

### 3. ESTATU MAILAKO LANKIDETZA ETA NAZIOARTEKOTZEA ..... 33

- 3.1. Estatuko berdintasun-arloko erakundeekiko lankidetzeta-ildoak ..... 34

- 3.2. Europaren proiektuari laguntzea ..... 35

- 3.3. Nazioarteko lankidetzeta ..... 36

### 4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ..... 38

- 4.1. Emakundeko Aholku Batzordea ..... 39

- 4.2. Emakumeen elkarte, fundazio eta federazioentzako dirulaguntzak ..... 41

- 4.3. Elkarrekin egindako proiektuak eta lankidetzeta-ildoak ..... 41

- 4.4. Beste baliabide lagungarri batzuk ..... 42

### 5. GIZARTEAREN SENTSIBILIZAZIOA ..... 43

- 5.1. Generation Equality ..... 44

- 5.2. Nahiko programa ..... 45

- 5.3. Gizonduz ekimena ..... 46

- 5.4. Martxoaren 8ko kanpaina ..... 49

- 5.5. Azaroaren 25eko kanpaina ..... 50

- 5.6. Berdintasunaren Emakunde Saria ..... 52

- 5.7. Eskola-agenda ..... 53

- 5.8. Emakunde aldizkaria ..... 53

### 6. BERDINTASUNA ENPRESETAN ..... 54

- 6.1. Berdintasun-planak: Aholkularitza ..... 55

- 6.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak ..... 55

- 6.3. Berdintasunerako lankidetzeta-erakundeak aitortzea ..... 56

- 6.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena ..... 57

- 6.5. BAI SAREA, berdintasunerako lankidetzeta-erakundeen Sarea ..... 57

- 6.6. Enpresentzako prestakuntza ..... 58

- 6.7. Funtsezkoak diren eragileekiko lankidetzeta-ildoak ..... 60



## 7. BERDINTASUNA PUBLIZITATEAN ETA KOMUNIKAZIOAN ..... 61

7.1. Begira / Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea.....	62
7.2. Kexen kudeaketa.....	63
7.3. Aholkularitza, sentsibilizazioa, prestakuntza eta material lagungarriak.....	64
7.4. Publizitateari eta komunikazioari buruzko azterlanak, ikerketak eta monitorizazioak.....	65

## 8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA ..... 66

8.1. Beldur Barik programa.....	67
8.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak.....	69
8.3. Lankidetzazko sozialerako ildoak eta proiektuak.....	69
8.4. JABETUZ programa.....	70
8.5. Txostenak, estatistikak eta ebaluazioak.....	71
8.6. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea.....	71
8.7. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan jarduteko tokiko protokoloak.....	73
8.8. Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak.....	74
8.9. Emakumeen genitalen mutilazioa.....	74
8.10. Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketa.....	75
8.11. Erakundearteko lankidetzazko ildoak eta -proiektuak.....	76

## 9. BERDINTASUN-ESKUBIDEEN DEFENTSA SEKTORE PRIBATUAN..... 78

9.1. Aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza.....	79
9.2. Aholkularitza-kontsultak eta kexen kudeaketa.....	80

## 10. PRESTAKUNTZA BERDINTASUNAREN ARLOAN .....81

10.1. UPV/EHUko udako ikastaroa.....	82
10.2. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldiak.....	83
10.3. Lankidetzazko IVAPekin.....	84
10.4. Lankidetzazko ildoak unibertsitateekin.....	84

## 11. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AZTERLAN ETA IKERKETAK .....86


11.1. Txostenak eta azterlanak.....	87
11.2. Ikerlanetarako bekak.....	89
11.3. Argitalpenen lehiaketa.....	90
11.4. Argitalpenak.....	91
11.5. Dokumentazio Zentroa.....	92

## 12. ERANSKINAK ..... 95

1. ERANSKINA: Diagnostikoak egiteko edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko dirulaguntzak jaso dituzten udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateen zerrenda.....	96
2. ERANSKINA: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako dirulaguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.....	100
3. ERANSKINA: Emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak diseinatzeko laguntza kontratatuzko dirulaguntza jaso duten enpresen eta erakundearen zerrenda.....	107
4. ERANSKINA: BAI SAREKO erakunde laguntzaileen zerrenda.....	109
5. ERANSKINA: Dirulaguntzak jaso dituzten emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda.....	111

## 13. ARGAZKIAK..... 115





# 1. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA



Emakunde Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomo bat da, nortasun juridiko propioa duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea du helburu. Bere funtzioak betetzeko, Emakundek langile eta aurrekontu propioak ditu, baita kudeaketa-sistema aurreratu eta garden bat ere.

## 1.1. Egitekoa, ikuspegia, jarduketa-esparruak eta egitura

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea izaera administratiboa duen erakunde autonomo bat da, nortasun juridikoa eta aurrekontu propioa dituena, eta gaur egun Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikita dago. Erakundearen eraketa otsailaren 5eko 2/1988 Legean araututa dago.

**Egitekoa:** Emakunderen egitekoa berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizartea sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko -benetakoa eta eraginkorra-, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

**Ikuspegia:** Emakundek erreferentziako eredia izan nahi du berdintasunerako politikak sustatzen, bai Euskal Autonomia Erkidegoan eta bai kanpoan, helburuen betetze-maila handia eta harekin lankidetzan diharduten herritar, pertsona eta erakundeek, eta bere langileek, egiten dioten balorazio ona direla eta.

### Jarduketa-esparruak:

- Administrazio publikoak
- Enpresak eta erakundeak
- Emakumeen elkarteak

- Komunikabideak eta publizitatea
- Herritarrak

### Egitura organikoa:

hauek dira Emakunderen jarduketa arautzen, kudeatzen eta koordinatzen duten organoak:

<b>Zuzendaritza- organoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzendaritza Kontseilua: lehendakaria buru<sup>1</sup>.</li> <li>• Zuzendaria: Izaskun Landaia Larizgoitia<sup>2</sup>.</li> </ul>
<b>Kudeaketa- organoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idazkari nagusia: Zuriñe Elordi Romero<sup>3</sup>.</li> <li>• Funtzio-arloak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Prentsa eta komunikazioa</li> <li>- Administrazioa.</li> <li>- Aholkularitza juridikoa eta informazioa.</li> <li>- Lankidetzatza instituzionala.</li> <li>- Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.</li> <li>- Programak eta prestakuntza.</li> <li>- Azterlanak, dokumentazioa eta plangintza.</li> <li>- Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa defendatzea.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Koordinazio- organoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.</li> <li>• Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.</li> <li>• Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuaren Aholku Batzordea.</li> <li>• «Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria pairatzen dituzten emakumeei arreta hobea Erakunde arteko II. Akordioaren» Jarraipen Batzordea.</li> <li>• Begira - Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea.</li> </ul>

1. Urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautua.

2. Urtarrilaren 29ko 137/2013 Dekretu bidez izendatua.

3. Ekainaren 27ko 184/2017 Dekretu bidez izendatua.



## 1.2. Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaritza Kontseilua da Emakunderen zuzendaritza-organo nagusia, eta honako kide hauek ditu: kontseiluburua, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria; kontseiluburuordea, Emakundeko zuzendaria, eta Eusko Jaurlaritzako sail hauetako kontseilukideak: hezkuntza, lana, osasuna, industria, kultura eta gizarte-gaiak; foru- eta toki-administrazioetako ordezkariak; Eusko Legebiltzarraren ordezkariak eta Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria<sup>4</sup>.

2021eko ekainaren 14an ohiko bilkura bat egin du Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak. Bilkura horren helburu nagusia izan zen araudiak eskatutako dokumentu hauek onartzea:

- EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2020.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena - 2019.
- Emakunderen 2020ko jarduketaren memoria.

Bilkuran, halaber, Kontseiluari Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa Eusko Legebiltzarrean izapidetzearen berri eman zitzaion.



Zuzendaritza Kontseilua.

4. Urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautua.



### 1.3. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak

Emakunden 38 langile aritzen dira: 31 emakume eta 7 gizon. Teknikariak osatutako taldea da -eta, bereziki, berdintasun-arloko adituena-denetan ugariena.

<b>Zuzendaria</b>  <b>Idazkaritza nagusia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 Prentsa-aholkulari</li> <li>• 7 Arlo-arduradun</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 12 Berdintasun-teknikari</li> <li>• 3 Aholkulari-juridiko</li> <li>• 1 Artxibo-teknikari</li> <li>• 1 Artzellan-teknikari</li> <li>• 1 Administrazio-kudeaketako teknikari</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2 Goi-kargudunen idazkari</li> <li>• 1 Administrari</li> <li>• 1 Administrari informatiko</li> <li>• 5 Laguntzaile orokor</li> <li>• 1 Mandatari gidari</li> </ul>
---	--	--	---

Emakundek 7.406.000 euroko aurrekontua izan zuen 2021ean bere programak eta ekintzak gauzatzeko<sup>5</sup>. Aurrekontua aurreikusitako aurrekontu-partiden arabera erabili zen, eta betetze-maila % 90ekoa izan zen.

### 1.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana Emakunderen ekintza-plana da, eta bertan zehazten da 2018-2021 aldirako lan-estrategia, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren eta XII. legegintzaldirako Gobernu Programaren esparruan. Emakundek bultzatutako politikak planifikatu, lehenetsi eta irisgarri egiteko tresna bat izateaz gain, politika horiek eraginkorrak eta eraldatzaileak izateko behar den konpromiso politikoaren adierazpena ere bada.

Urteko jarduketak planifikatu eta ebaluatuz garatzen da plana. 2021erako ekintza-plana Emakunderentzat lehentasunezkoak diren 5 helbururen inguruan egituratzen da. Helburu horiek, zentralak eta lehentasunezkoak direnez, Emakunderen lanaren eta baliabideen zati handi bat biltzen dute:

1. Prozesua bultzatzea, COVID-19ari aurre egiteko esku-hartze instituzionalak ez dezan genero-desberdintasun diskriminatzailea areagotu, ezta sustatu ere.
2. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoen liderra izatea eta horien inpaktuak aztertzea.
3. Emakumeen herritartasun osoa bultzatzea, beroriek ahalduntzearen eta gizarte zibila politika publikoetan parte-hartzaile eta solaskide izatearen bidez.
4. Soldata-arrakala ezabatzen laguntzea.
5. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erakundearen esku-hartzea indartzea eta sendotzea.

5. Honek arautzen du: 1/2021 Legea, otsailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021 ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen.



Plangintza beste 22 helburu orokorrekin osatzen da, Gobernu Onean aurrera egiteko, emakumeen ahalduntzea sustatzeko, ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko, eskubideak bermatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria matxista ezabatzeko.

2021erako jarduketan ebaluazioak, aurreko urteetan bezala, betetze-maila handia du, bai jarduketan garapenari dagokionez, bai aurrekontua betetzeari dagokionez.

## 1.5. Kudeaketa aurreraturako plan estrategikoa

Kudeaketa Publiko Aurreraturako Emakunderen 2020-2021 Plan Estrategikoaren esparruan, 2021eko kudeaketa-plana egin eta gauzatu, eta 2020koa ebaluatu da.

Nabarmentzekoa da erakundea etorkizuneko erronken aurrean behar bezala kokatzeko hausnarketa estrategikoa egiteko garatutako lana, bi saio monografiko barne, bereziki Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen erreforma onartzeari dagokionez.

Bestalde, Q-eparen osoko saioetan eta lan-saioetan parte hartu da (kudeaketako bikaintasunarekin konprometituta dauden EAEko erakundearen sarea da).

## 1.6. Euskararen erabilera normalizatzeko plana estrategikoa

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Emakunderen 2018-2022 Plan Estrategikoaren esparruan, 2021eko urteko kudeaketa-plana egin eta gauzatu, eta 2020koa ebaluatu da. Gogoratu behar da BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko aurkeztu zela Emakunde 2020an; goi-mailako kalifikazioa lortu zuen, eta aurtan, besteak beste, ebaluazio horretan proposatutako hobekuntza-esparruetan lan egin da, hala nola errotulazio fisikoa eta digitala aztertu dira, Emakunderen harrera-protokoloa aztertu da, beharrezkoa balitz eguneratzeko, eta kontratazio-agirietan erabilitako hizkuntza-irizpideen jarraipena egin da.



Euskararen eguna.



Bestalde, eta 2021ean garatutako jarduketekin jarraituz, honako hauek nabarmendu behar dira: *Euskara Batzordeak* Planaren komunikazioan eta jarraipenean egindako lana, Emakunderen hizkuntza-irizpide propioak eguneratzea, eta arloz arlo hura ezagutu eta aplikatzeko egindako lana, hiru *Euskunde* dibulgazio-buletin egiteko lana, langileentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak (mintzasaioak, eusle proiektua), euskararen ahozko zein idatzizko erabileraren neurketak, eta, etorkizuneko ekintzak planifikatze aldera, langileek hizkuntza normalizatzeko prozesuaren inguruan dituzten iritziak jasotzeko egindako lana. Dokumentazioa euskarara itzultzeko eta euskaraz



Hizkuntza-kudeaketako jardunbide egokien jardunaldia.

sortzeko prozedura sortzeko ere egin da lan, herritarrei zerbitzua oso-osorik euskaraz eman ahal izango zaiela bermatzeko. Halaber, hizkuntza-normalizazioko teknikariekin koordinatzeko bileretan parte hartzen jarraitu dugu, baita hizkuntza-politikaren arloan Administrazio publikoaren arteko Koordinazio Batzordearen (HAKOBA) talde teknikoaren bileretan ere, EAEko administrazio publikoetako berdintasun-teknikarien artean euskararen erabilera sustatzeko. Euskaraldiarekin lotutako jardueretan ere parte hartzen jarraitu da, baita AEK-k sustatutako jardueretan ere, eta Euskalitek euskaraz antolatutako jardunbide egokiei buruzko jardunaldi batean parte hartu da.

## 1.7. Dirulaguntzen plana

2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eskatzen duenarekin bat etorritz, haren aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak zehazten dira, baita horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak ere. Anlisa bost eremutan egituratzen da:

- Emakumeen ahalduntzea sustatzea, asoziazionismoaren bidez, eta haien aintzatespena egitea
- Erakunde publiko eta pribatuetan berdintasuna sustatzea eta ezartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak onartuz
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, sentsibilizatorako jarrerak zabaltzen dituzten erakunde eta elkarteei lagunduz
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera bideratutako azterlanak eta ikerketak sustatzea
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiteko jarduketak aintzatestea.



## 1.8. Informazioa, gardentasuna eta kontuak ematea

2021ean, Emakundek jarraitu du egiten dituen jarduketan inguruko informazio eguneratua ematen herritarrei, bereziki bere webgunearen eta sare sozialen bidez, baita Irekia atari informatiboaren eta komunikabideen bidez ere. Era berean, gardentasunari buruzko webgunea elikatzen eta eguneratzen jarraitu du, eta kontuak eman ditu Eusko Legebiltzarrean.

**WEBGUNEAK:** Emakunderen webgunea herritarrentzako zerbitzuaren parametro zorrotzak eskainiz finkatu da. Alde horretatik, zerbitzu publiko digitalaren kontzeptua sakondu da, eta ahal den neurrian bidea eman da edukien kontsulta gai-arlo batzuetan oinarrituta egin ahal izateko, baita sare sozialekin, Irekia atariarekin, blogekin eta abarrekin interakzioan aritzeko ere.

**SARE SOZIALAK:** Mantendu eta indartu egin da 2021ean, modu esanguratsuan, sare sozialen aldeko apustua; presentzia handiagoa lortu da Facebooken eta Twitterren, eta horrek esan nahi du igoera esanguratsua egon dela jarraitzaile kopuruari dagokionez; Instagramen aldeko apustua ere egin da. Twitterren 9.446 jarraitzaile ditu, Facebooken 12.128 eta Instagramen 4.336. Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo dira sarera, eta erakundeak kontu bat dauka YouTubeen.

**IREKIA:** Emakunderi buruzko albisteak eta eguneratzeak agertu dira Eusko Jaurlaritzaren Irekia atarian.

**KOMUNIKABIDEAK:** Herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta jardueraz informatzeko, erakundeak sentsibilizazio-

eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidaltzen ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatzen ditu. Era berean, Emakunde da komunikabideen erreferente nagusietako bat emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai jorratzeko.

**EUSKO LEGEBILTZARRA:** Emakunderen eta Eusko Legebiltzarrearen arteko harremana etengabea eta joria da. 2021ean, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordeak eta Ogasun eta Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeak eskatutako 3 agerralditan parte hartu du Emakundeko zuzendariak. Halaber, mozio baten sei hilekoko betetze-mailaren berri ere eman du. Era berean, 22 galderari erantzun zaie idatziz eta honako txosten hauek igorri dira Eusko Legebiltzarreko, horien berri izan dezan:



Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordea.



- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen 2020ko Jarduera Memoria.
- Berdintasunaren eta bazterketarik ezaren printzipioen arloko 2020ko Jarduera Memoria.
- Begira, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholkularitza Batzordearen 2020ko Jarduera Memoria.
- «EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifrak, 2020» txostena.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana botere publikoen alorrean gauzatzeari buruzko Jarduketa Memoria, 2019.

Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordeak 2014an onartutako legez besteko proposamenari erantzuteko (proposamen horren bidez, Emakunderi eskatzen zaio Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari aholkularitza eta laguntza eskaintzeko modu egonkor eta iraunkorrean, berdintasunari dagokionez), Emakundek

lankidetzan dihardu Gazteriaren Euskal Kontseiluarekin, laguntza teknikoa eta ekonomikoa emanez, erakunde horrek genero-ikuspegia txerta dezan nola bere funtzionamenduan hala jarduera guztietan. Halaber, Gazteriaren Euskal Kontseiluarekin elkarlanean aritu gara Beldur Barik kanpaina abiarazteko.

## 1.9. Harreman estua gizartearekin

Emakundek harreman estua izan du 2021ean gizarte-eragileekin. Hala, Emakundeko zuzendaria hainbat erakunde, elkarte, enpresa eta entitatek antolatutako jardueratan izan da. Horrela, Erakundeak berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa indartzen du gizarteko esparru guztietan, eta entzuteko aukera ematen du.

Emakundeko zuzendari nagusi Izaskun Landaida horrelako hainbat topaketatar bertaratu da 2021ean, honako hauek beste:

ERAKUNDEA edo ANTOLAKUNDEA	DESKRIBAPENA
Bizkaiko Batzar Nagusiak	Bizkaiko emakume hautetsiek pandemiaren lehen lerroan egon diren langileei Gernikan egindako omenaldian parte hartzea.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.	«Genero-ikuspegia curriculumean eta araubide bereziko eta lanbide heziketako ikasketetako irakaskuntza-jardueretan txertatzeko gidaliburua» aurkeztea.
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, HAZIrekin batera	Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatutako «Landa-eremuko emakumeen parte-hartze publikoa» jardunaldian parte hartzea, emakumeek erabaki-organoetan eta bizitza publiko zein sozialeko estamentuetan duten rola aztertze eta aldarrikatzeko.
Bizkaiko Foru Aldundia eta BBK	Berdintasunaren aldeko Zirgari Sarien IV. edizioko sariak banatzeko ekitaldian parte hartzea.
Pontevedrako Diputazioa	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikari buruzko Espainiako kongresuan berdintasun-arloko zuzendarien mahaiari parte hartzea.
Emakumearen Ministerioa. Dominikar Errepublika	Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko «Vivir sin Violencia es Posible» mahai-inguruan parte hartzea.
Deustuko Unibertsitatea	«Generoa eta Euskara: kristalezko sabaiak apurtuz» jardunaldiaren aurkezpena.



ERAKUNDEA edo ANTOLAKUNDEA	DESKRIBAPENA
Artium, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa	Artiumeko Liburutegian eta Dokumentazio Zentroan abian jarritako «Euskal Emakume Artisten, Praktika artistikoen eta Artearen Teoria feministen Dokumentazio-zentrorra» bisita.
Kultura Communication Desarrollo KCD GGKEa	«Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren 2021eko Jaialdiaren (13. edizioa) amaiera-ekitaldian eta sari-banaketan parte hartzea, Bilbon.
Salda Badago eta Emagin Elkarteak	2019ko azaroan Durangon egin ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetako «Salda Badago» liburuaren aurkezpena.
Plazandreok	2021eko Feministaldiaren online aurkezpena.
Kera Elkarteak	«Topaketa feminista pedagogikoak emakume ijitoekin» ekimenaren aurkezpena.
Mundu Libre y Solidario gobernuz kanpoko erakundea	Emakume Migratu Afro-beltza Euskadin V. Jardunaldiaren aurkezpena, «Ellas son mujeres negras españolas/vascas y profesionales» izenburupean.
Eraikiz Kolektiboa	Feminismoa, indarkeria matxistak eta esku-hartze sozialaren IV. Kongresuaren aurkezpena.
Women's legacy-Emakumeen Emaria	Kultura Ondarea Generoaren arabera Interpretatzeko Nazioarteko I. Foroan parte hartzea.
ONCE Euskadi	Azaroaren 25aren harira antolatutako jardunaldian parte hartzea.
Bizkaiko Psikologia Elkargoa	«Salud Mental con perspectiva de género. Hacia una práctica profesional feminista» udako ikastaroaren inaugurazioa.
Asociación para el Progreso de la Dirección elkartea eta San Prudencio Fundazioa	Jardunaldi / Mahai-inguruaren irekiera: «Berdintasunaren arloan aurrera egiteko ideiak: zertan ari dira enpresak?»



“Vivir sin Violencia es Posible” Mahai-ingurua.



Artium Museoaren Liburutegia. Euskal Artisten Dokumentazio Zentroa.





Jardunaldi Feministetako «Salda Badago» liburuaren aurkezpena.



Emakume Ijitoen arteko Topaketa Feministen irekiera.



Emakume Migratu Afro-beltza Jardunaldiaren aurkezpena.



Feministaldiaren aurkezpena.





Zirgari Sariak banatzeko ekitaldia.



Pandemiaren lehen lerroan egon diren emakume langileei egindako omenaldia.



«Generoa eta Euskara» jardunaldiaren aurkezpena.



«Berdintasunaren arloan aurrera egiteko ideiak» Jardunaldiaren irekiera.





## 2. BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK



Berdintasunerako politika publikoak sustatzea da Emakunderen jarduketa-esparru garrantzitsuenetako bat. Berdintasunaren arloko lege-esparrua arautzeak eta berdintasunerako plan orokorraren bidez estrategia komun bat definitzeak, erakundearteko koordinazio sendoarekin batera, EAEko berdintasunerako programak eta esku-hartzeak modu antolatu eta koherentean hedatzea errazten du.

Dirulaguntzen, hitzarmenen eta lankidetzaproiektuen bidez berdintasuna sustatzea, eta, horretarako, baliabideak eta adituen aholkularitza baliatzea, estrategikoki lagungarriak dira berdintasun-politikak garatzeko. Bide horretan, egindako jarduketaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ezinbestekoa da kontuak emateko eta etengabe hobetu ahal izateko.

Emakundek, gainera, EAE barruan zein kanpoan erreferente diren erakundeekin eta entitateekin lan egiten du, aliantzak sortzeko eta, aldi berean, berdintasuna maila guztietan sustatzen laguntzeko.

## 2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea

2019ko martxoaren 6an Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluan aurreproiektuaren lehen zirriborroa aurkeztu ondoren, 2020ko urtarrilaren 28an onartu zuen Gobernu Kontseiluak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren bezala aldatzeko lege-proiektua. Hauteskundeak aurreratzearen eta Eusko Legebiltzarra desgitearen ondorioz, proiektua bertan behera geratu zen.

Legealdi berriarekin batera, proiektuari berrekin zitzaion, eta bigarren aldiz aurkeztu zen, bere horretan, Gobernu Kontseiluan. Gobernu Kontseiluak azaroaren 17an onartu zuen proiektua, eta EAEko legebiltzarrerara bidali zuen, hark izapidetu zezan.

2021ean, Eusko Legebiltzarrean izapidetu da lege-proiektua, eta nabarmendu behar da agerraldien fasean 19 pertsonak hartu dutela parte (adituak nahiz erakunde sozialetako ordezkariak), Vox Talde Mistoak osoko zuzenketa bat egitea proposatu duela, zeina atzera bota baitute, eta 200 zuzenketa partzial baino gehiago aurkeztu direla berriaz helburu horretarako eraturako ponentzian aztertzeko.

Lege-proiektu horrek Eusko Jaurlaritzaren legegaldiko konpromiso bati zein Legebiltzarreko talde politiko guztien eskariei erantzuten die, eta, batez ere, EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean,



Eusko Legebiltzarra. Berdintasunerako Legea.



berdintasun-politikak, prebentzioa eta erakundeen erantzuna hobetu eta indartu beharri, kontuan izanik gaur egun indarrean den testua duela 15 urte onartu zela. 4/2005 Legea aldatu nahi da, hain zuzen ere, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako politika eta herrialde-itun total bat lortzeko, legea indartzeko eta arau- eta gizarte-inguruabar berrien ondoriozko behar berrietara egokitzeko.

Berdintasunerako Legearen 2020ko ebaluazioa, zeina bat baitator hura aldatzeko prozesuaren azken fasearekin, mugarri bat da, baita berdintasunaren arloan aurretik egindako lana ebaluatzeko aukera ere. Testuinguru horretan, ebaluazioa aurreko neurketen jarraitutasuna eta alderagarritasuna ziurtatzera bideratu da, baita 15 urteko ibilbidean lortutako aurrerapenak dokumentatzera ere. Horrela, lortutako emaitzak erreferentzia-puntu bikoitza izango dira: hasierakoa eta amaierakoa. Batetik, ibilbideari eta 2005, 2010 eta 2015eko ebaluazioei dagokienez; eta, bestetik, ibilbide berriari eta etortzear dauden ebaluazioei dagokienez.

Aurretik diseinu-lana eginda, 2021ean, kanpoko talde batek garatutako ebaluazio-prozesuak hainbat teknika konbinatu ditu informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzeko. Lan horretan parte hartu dute Legearen aplikazioan inplikaturako erakunde guztiak: Emakundeko arlo tekniko zein politikoko langileek, Eusko Jaurlaritzako sailtako eta erakunde autonomoetako kideek, foru-aldundiek eta udalek, hainbat eragile ekonomiko eta sozialek eta berdintasunean adituak diren pertsonak.

Horrekin guztiarekin, egindako lorpenen eta betetzeke dauden erronken ikuspegi orokorra izateko aukera emango du ebaluazioak, legearen tituluetan eta xedapenetan araututa dauden esku-hartze eremuei dagokienez. Edonola ere, ebaluazio horrek, Berdintasunerako Legearen betetze-maila eta aplikazioa neurtzeaz gain, legearen garapenean

inplikaturako pertsona eta erakunde guztiak egindako ahaleginaren garrantzia azpimarratzea espero dugu.

## 2.2. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana

EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek berdintasuneko gaietan izan beharreko jarduera orientatzeko egindako ibilbide-orria da. Plana 2018an jarri zen indarrean; EAE osoan aplikatzen da, eta Eusko Jaurlaritzak eta haren sailek, foru-aldundiek eta udalek beren jarduketa-planen bidez batera eta koordinatuta lortu behar dituzten helburu nagusiak adierazten dira bertan. Planaren helburua emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiten laguntzea da, arlo politiko, ekonomiko, kultural eta sozial guztietan.

VII. Planaren garapen-maila ezagutzeko, botere publikoek jarraipena egiten dute urtero aplikazio informatiko baten bidez, zeinak informazio telematikoa biltzeko bidea errazten baitie. 2020an egindako jardueri buruzko informazioa bildu da 2021ean. Guztira 129 erakundek hartu dute parte.

Emandako informazioa oinarri hartuta, txosten hauek egin dira:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren (2020) ebaluazioa, EAEko botere publikoek egindako berdintasun-planaren garapen eta ezarpenaren jarraipena barne hartzen duena.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako organismo autonomo eta erakunde publikoen jardueraren jarraipena, 2020. urteari dagokiona.



## 2.3. EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plana

EAEn soldata-arrakala murrizteko estrategia eta 2021-2025 aldirako ekintza plan operatibo berria, 2021ean Lehendakartzak eta Emakundek batera egindakoa, XI. Legegintzaldirako Gobernu Programaren konpromisoen artean kokatzen dira. Bertan, bereziki nabarmentzen da soldata-diskriminazioari aurre egiteko eta lan-arloan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bultzatzeko konpromisoa, baita ordainsariei dagokienez berdintasunean aurrera egiteko neurri ekonomiko eta sozialak bultzatzea ere, enpresetan soldata-gardentasuna sustatzeko eta soldata-diskriminazioari aurre egiteko.

Estrategia plan operatiboaren bidez ezartzeko, sailekin koordinatuta lan egiten da, Sailarteko Mahai baten bidez. Era berean, Emakundek Ekintza Plan Operatiborako konpromisoak eta jarduketak diseinatu, inplementatu eta ebaluatzen ditu.

Zehazki, 2021ean honako ekintza hauek garatu dira:

EKINTZAK	DESKRIBAPENA
Elkarrizketa Sozialaren Mahaiarekin elkarlanean aritzea	Emakundeko zuzendariak 2021eko irailaren 14an deitutako Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren bileran parte hartu zuen. Era berean, zuzendaria Genero Berdintasunari buruzko Lantaldearen bileretako buru izan da. Lantalde hori sindikatuetako, enpresa-erakundeetako eta Eusko Jaurlaritzako sailetako ordezkariekin sortu zen, LHKren laguntzaz. 2019ko otsailean sortu zen, eta ordutik dihardu honako alderdi hauek sustatzen: kontziliario erantzukidea, enpresetako berdintasun-planak, genero-berdintasuna negoziazio kolektiboan, eta soldata-arrakala murrizteko estrategia eta ekintza-plan operatiboa garatzea eta hari ekarpenak eta jarraipena egitea. Lantalde horrek 4 bilera egin ditu 2021ean (apirilaren 21ean, maiatzaren 27an, uztailaren 21ean, urriaren 26an).
Soldata-arrakalari buruzko txostena egitea	Euskal Autonomia Erkidegoko soldata-arrakalari buruzko txosten bat egin eta zabaldu da, Estibaliz García Canok egindakoa, Espainiako Estatistika Institutuak soldata-egiturari buruz lau urterik behin egiten duen inkestan eskuratutako datuetan oinarrituta.
Soldata-berdintasunaren aldeko eguneko prentsa-oharra	Emakumeen eta gizonen soldata-berdintasunaren aldeko egunaren bezperan, prentsa-ohar bat zabaldu da, gogorarazteko soldata-diskriminazioa dela gaur egun emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna eragiten eta betikotzen ari den faktoreetako bat.
Gizonduz eta Nahiko programak garatzea	Gizonduz eta Nahiko programak indartzeko lan egiten jarraitu dugu, herritarrak -bereziki, gizonak- sentsibilizatzeko etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan izan beharreko erantzukidetasunaren inguruan. Gizonek hazkuntzan izan beharreko inplikazioan sakontzeko eta erantzukidetasunean eragina duten balioen aldaketa adin txikietan lantzeko jardun dugu.



EKINTZAK	DESKRIBAPENA
Enpresetan berdintasun-planak egiteko laguntza	Enpresetan soldata-arrakala murrizteko lan egiten jarraitu dugu, eta horretarako, enpresetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak orokortzeko lanak babestu ditugu. Helburu horretara bideratutako dirulaguntza-lerroaren zuzkidura ekonomikoari eutsi zaio.
BAI SAREAREN materialak eta jardunaldia egitea	BAI SAREA berdintasunerako erakundeen sareak abenduan egindako batzarrean honako hauek aurkeztu ziren: produktu berriak, soldata-arrakalaren analisiaren FAQak, soldata-arrakalaren mapa bisuala eta enpresetan soldata-arrakalari heltzeko gardentasun-tresna. Produktu horiek -sarearen barruan eratuak- soldata-arrakalari buruzko lantaldeak diseinatu ditu.



Elkarrizketa Sozialerako Mahaia.



Bai Sarea.



## 2.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Eusko Jaurlaritzaren jarduketak koordinatzeko organoa da Sailarteko Batzordea. Emakunderi atxikita dago; batzordeko presidentea Eusko Jaurlaritzako lehendakaria da, eta batzordeko presidenteordea Emakundeko zuzendaria. Erakundeko idazkari nagusiak idazkaritza-funtzioak betetzen ditu eta kide gisa parte hartzen dute Lehendakariitzako idazkari nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburuorde batek<sup>6</sup>.

2021eko uztailaren 5ean egin zuen ohiko bilkura, eta gai hauek landu zituen:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan Eusko Jaurlaritzak 2019an gauzatuak jardueraren jarraipenari buruzko txostena aurkeztea.
- 2021eko berdintasun-planak entregatzea eta sail bakoitzak zein Emakundek aurreikusitako ekintza nagusiak labur aurkeztea.



Eusko Jaurlaritzaren Sailarteko Batzordea.

- XII. legegintzaldiko berdintasunerako sail-planak egiteko irizpideak adostea.
- Soldata-arrakalaren aurkako ekintza plan berria: 2021-2025.
- Sailarteko Batzordearen osaera aldatzea aurreikusten duen dekretu-proiektuari buruzko txostena egitea.
- XI. legegintzaldian berdintasunaren aldeko gizon politikarien taldeak izandako esperientziari buruzko txostena egitea, eta XII. legegintzaldian berriz egin dadin proposatzea, gizonekin zein emakumeekin.

Batzordeak Sailarteko Talde Tekniko bat dauka, batzordekideei babesa eta aholku teknikoa emateko. Emakundek Sailarteko Talde Teknikoa bultzatu eta koordinatzen du, eta zeregin horrekin uztartzen du beste bide batzuen bitartez ere Jaurlaritzako sailei, erakunde autonomoei eta erakunde publikoei eskaintzen dien aholkularitza eta lankidetzak.

### Sailarteko Talde Teknikoa

2021ean, Sailarteko Talde Teknikoa 3 aldiz bildu da, urteko lan-plana adosteko eta gai hauei buruz hitz egiteko edo informazioa emateko:

- 4/2005 Legearen bigarren aldaketa egiteko lege-aurreproiektuaren izapidetzearen egoera.
- Sailarteko Batzordearen bileran jorrotutako gaiak.
- Berdintasuneko teknikarientzako prestakuntza-eskaintza.
- Sailen plangintza eta administrazio instituzionala.
- Dirulaguntzetan eta kontratu publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko gidaliburua.

6. Abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuak arautua.



## 2.5. Eusko Jaurlaritzako sailekin elkarlanean aritzeko ildoak eta proiektuak

Sailarteko Batzordearen esparruan eta Sailarteko Talde Teknikoan egiten den lanaz gain, Emakundek aldebiko lana egiten du zenbait sailetan eta horiekin lotuta dauden edo lotura duten erakundeekin eta entitateekin, funtsean proiektu eta zeregin zehatzetan dituzten eskariak kontuan hartuta. 2021. urtean, kolaborazio hauek nabarmendu behar dira:

ERAKUNDEAK	PROIEKTUAK
Lehendakaritza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EAEn soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan operatiboa diseinatzeko laguntzea eta haren garapenean parte hartzea.</li> <li>- Euskadi Basque Country 2030 Estrategia garatzen eta ezartzen laguntzea.</li> </ul>
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista baloratzeko tresna bat egiteko, Eudelek unean-unean emandako laguntza baliatuta.</li> <li>- Familia eta Haurren Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea «Haur eta nerabeenganako indarkeria EAEn. Diagnostikoak, erronkak eta orientabideak» txostena egiteko prozesuan.</li> <li>- Gazteplanaren Sailarteko Batzordean (Gazteria Zuzendaritza) parte hartzea Gazte Plana garatzeko eta haren jarraipena egiteko, Emakundek gazteei zuzendutako berariazko ekintzak txertatuz.</li> <li>- Adinekoen Kontseilu Sektorialean, Herritar Etorikinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan eta Familiaren Euskal Kontseiluan parte hartzea.</li> </ul>
Segurtasun Saila	Ertzaintzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoen arteko koordinazio-protokoloak berrikusteko proiektuaren jarraipen-taldean parte hartzea.
Lan eta Enplegu Saila	Elkarlana, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko eta EAEko enpresetan sexu-bereizkeriako egoerak prebenitzeko edo zuzentzeko hitzarmenaren esparruan.
Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	Koordinazio- eta plangintza-lanak, segurtasun, higiene, ingurumen eta lan-osasunaren arloetan genero-ikuspuntutik gauzatzen diren prestakuntza-, informazio-, dibulgazio- eta aholkularitza-jarduketara bateratuen hitzarmenaren esparruan.
Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua garatu eta ezartzeko elkarlanean aritzea.
IVAP	Lankidetzeta eta koordinazioa berdintasunean oinarritutako zeharkako prestakuntzaren garapenean, administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileentzat.
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	Emakume Nekazarien Estatutuaren jarraipena egiteko batzordean parte hartzea.
Ekonomia eta Ogasun Saila	EAEko aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan elkarlanean aritzea.
Eustat - Euskal Estatistika Erakundea	Euskal Estatistika Kontseiluan parte hartzea.



ERAKUNDEAK	PROIEKTUAK
Hezkuntza Saila	<p>EAEko hezkuntza-sistemaren II. hezkidetzeta-planaren jarraipen-batzordean eta batzorde teknikoan parte hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Interesa duten ikastetxeen esku jartzea <b>Nahiko</b> programa ezartzeko prestakuntza, aholkularitza eta laguntza. Sailarekin elkarlanean aritzea, ikastetxeak programan parte hartzera erakartzeko.</li> <li>- <b>Beldur Barik eta Gizonduz</b> ekimenetako materialak eta unitate didaktikoak interesa duten ikastetxeen eskura jartzea Hezkidetzagunean, Ikusguneren barruan hezkidetzako materialei eta baliabideei eskainitako gunean.</li> <li>- EAEko ikastetxeetan <b>berdintasun-egoerari buruzko diagnostikoa</b> egitea, EAEko ikastetxeetako berdintasunaren errealitatea ezagutzeko, premiak identifikatu eta horiei erantzun ahal izateko.</li> </ul>
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	Hiru foru-aldundiek, EUDELeK eta hainbat toki-erakundek parte hartu zuten aurretzeko parte hartzeko prozesu baten ondoren, eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin lankidetzan, hiri-antolamenduko plan orokorren genero-inpaktuaren aurretzeko ebaluazioak egiteko gida sortzea.
Osasun Saila	Zuzendaritza Batzordearen eta osasuneko batzorde teknikoaren bitartez, politika guztietan elkarlanean aritzea, eta Emakundek arlo horretan egindako jardura guztien txostena aurkeztea; horrez gain, erakundearteko mahaian ere parte hartzea, nahasmendu mentalak dituzten pertsonen estigmari heltzeko.
Osakidetzeta	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren esparruan berdintasuna sustatzeko aholkularitza.
GOGORA - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	Gogora institutuaren Zuzendaritza Kontseiluan parte hartzea.
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	Eusko Jaurlaritzaren Euskararen erabilera normalizatzeko plana (2018-2022) eta Euskararen Agenda Estrategikoa garatzen eta ezartzen laguntzea, eta Euskararen Aholku Batzordearen Hizkuntza eta Genero Batzorde Berezian parte hartzea.



## 2.6. Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa

Genero-inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioa da genero-ikuspegia politika publikoetan sartzeko oinarritzko neurrietako bat.

Sailek genero-inpaktuari buruzko txostenak zuzen egiten dituztela egiaztatzeari eta hobekuntza-proposamenak emateari ekin zion Emakunde 2007an; hala, 2021ean, Emakundek 59 espediente jaso eta aztertu ditu. Hurrengo taulan, urtez urte izandako bilakaera ageri da.

Genero-inpaktuari buruzko txostenak egiteko gidaren osagarri, Emakundek gaikako 18 gida ditu, txosten horiek egiteko beharrezkoa den informazioa ematen dutenak. Guztira, 7 gida hauek eguneratu dira 2021ean: Landa-garapena eta nekazaritza; Herritarren segurtasuna; Ekintzailtza eta ETEak; Garraioa eta mugikortasuna; Ikerketa; Garapen teknologikoa eta berrikuntza (I+G+B); Ekonomia; eta Industria.

2006-2021 DATUAK

	Legeak	Dekretuak	Aginduak	Ebazpenak	Guztira
2006	0	1	0	0	1
2007	17	57	25	1	100
2008	19	75	81	4	179
2009	4	66	45	5	120
2010	14	55	51	8	128
2011	27	71	47	4	149
2012	6	106	39	3	154
2013	6	43	18	1	68
2014	12	43	29	1	85
2015	12	62	36	2	112
2016	2	32	34	2	70
2017	4	39	25	1	69
2018	7	37	23	0	67
2019	12	43	14	0	69
2020	3	26	24	1	54
2021	8	32	18	1	59
<b>Guztira</b>	<b>153</b>	<b>789</b>	<b>508</b>	<b>34</b>	<b>1.484</b>



## 2.7. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakundearteko batzordea

Erakundearteko Batzordeari dagokio erkidego-, foru- zein toki-administrazioek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egiten dituzten jarduketak koordinatzea. Emakunderi atxikita dago, eta zuzendaria da buru eta EAEko administrazio publikoko hiru mailek ordezkaritza berdina dute<sup>7</sup>.

2021ean, Batzordeak ohiko bilera bat egin zuen ekainaren 1ean, eta honako gai hauek izan zituzten hizpide:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ebaluazioaren egoera.



Emakumeen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.

- Batzordearen 2018ko abenduaren 12ko Erabakiaren, EAEko berdintasun-politiketan kalitate estandarrak ezartzeari buruzkoaren, jarraipena. Erakunde bakoitzak horri buruz hartutako neurrien azalpena.
- Lantalde teknikoek egindako lanari buruzko informazioa.
- Generation Equality proiektuari buruzko informazioa.

### Lantalde teknikoak

Erakundearteko Batzorde horren esparruan, Emakundek lantalde tekniko hauek bultzatu eta koordinatzen ditu:

- **Sektore publikoaren hitzarmen, dirulaguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak.** 2021ean, talde hori behin bildu da, eta, bertan, «Berdintasuna kontratazio publikoetan: aukerak eta mugak egungo testuinguruan»

**BERDINTASUNA KONTRATAZIO PUBLIKOAN:  
AUKERAK ETA MUGAK EGUNGO TESTUINGURUAN**

**IGUALDAD EN LA CONTRATACIÓN PÚBLICA:  
POSIBILIDADES Y LÍMITES EN EL CONTEXTO ACTUAL**

**ZOOM**  
**12:30 - 13:45**

**EKAINAK 30 / 30 DE JUNIO**



**SANTIAGO LESMES ZABALEGUI**  
**EIDER LARRAZABAL ASTIGARRAGA**

Mintegia: berdintasuna kontratazio publikoetan.

mintegia bultzatu zen. Mintegi horretan, berdintasun-klausulak txertatzeko gomendioak eta alderdi orokorrak jorratu ziren, indarreko legeria kontuan hartuta.

- **Berdintasun-politiketan gutxieneko kalitate estandarrak ezartzea eta erakundearteko koordinazioa hobetzea.** 2018an kalitate estandarrak definitzeko lan egin ondoren, 2019an erakundearteko koordinazioa hobetzeko lanari ekin zitzaion, bereziki toki-esparruko esku-hartzeetan. Helburua erkidego-mailan lan-esparru komun bat sortzeko oinarriak ezartzea da, non erakunde bakoitzak toki-eremuan bultzatzen dituen ekimenak guztien artean zehaztutako eta adostutako esparru bati erantzuteko jomuga izango baitute. Horretarako, 2021ean bost aldiz bildu da taldea.
- **Berdintasuna Europako inbertsioko eta egiturako funtsetan.** 2020an, 2020-2023 aldirako onartutako planaren ezarpenean aurrera egin da, EIE funtsen jarduketan genero-berdintasuneko administrazio-gaitasuna ezartzeko, baita esku hartzen duten talde eta eragileetan ere. Horretarako, 2021ean 7 talde eragile jarri dira martxan, funts eta administrazioaren maila bakoitzeko bana, baita hiru esperientzia pilotu ere (23 bilera guztira). Horrez gainera, programa operatiboaren egoeraren jarraipena egin da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipio horizontala betetzeari erreparatuta (indarguneak eta hobetzeko alderdiak). Horretarako, 2021ean behin bildu da taldea.

Bestalde, EAEko udalentsako eta aldundientzako informazio- eta aholkularitza-lana egin da.

## 2.8. Lankidetzaproiektuak EUDELekin

2005. urtetik, EUDEL - Euskadiko Udalen Elkartek eta Emakundek lankidetzahitzarmenak sinatu dituzte, toki-mailan berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko, baita emakumeen aurkako indarkeria mota oro prebenitzeko eta ezabatzeko ere.

Akordio horiek urteetan zehar garatzen ari diren hainbat ekimenetan gauzatzen dira. Jarraian, 2021ean ekimen horien esparruan egindako jardueren memoria jasotzen da.

**BERDINSAREA - BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EUSKADIKO UDALEN SAREA:** Sare hori Emakunderen ekimenez sortu zen, eta 2005ean EUDEL/Euskadiko Udalen Elkarterekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren bidez jarri zen abian.

Sareak honako organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea, EUDELeko eta Emakundeko ordezkariak osatzen dute, eta honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, Sarearen jarduera gidatzen duten gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurlaritzaren eta gainerako erakundeen politiketikiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.
- Osoko Bilkura Sarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiek osatzen dute.
- Batzorde Teknikoa udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasuneko teknikariak osatzen dute, baita Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen diren teknikariak eta Emakundeko teknikari batek ere.



Hauet izan dira, zehazki, 2021ean Emakundek egindako ekintzak:

- Berdinsarea garatu eta finantzatzeko, EUDELein sinatutako hitzarmena berritu eta eguneratzeko proposamena egitea.
- Berdinsarearen Jarraipen Batzordearen, Osoko Bilkuraren eta Batzar Teknikoaren bileretan parte hartzea eta dagozkien erabakien jarraipena egitea.
- Talde eta proiektu hauetan jardun du:

JARDUKETAK	DESKRIBAPENA
Berdinlan	Honako batzorde hauen lanarekin jarraitu da: - Indarkeriari udal-erantzuna emateko batzordea: Tokiko mailan indarkeriaren prebentzioari dagokion posizionamendu-dokumentuaren zirriborroa landu da. - Genero-ikuspegia zeharkako bihurtzeko batzordea: Udal-erabakiguneetan genero-ikuspegia txertatzeko lan egin da. - 5.000 biztanletik beherako udalerrietan berdintasuna sustatzeko batzordea: Udalerrri txikietakoko kalitate estandarrei buruzko gida landu da.
Berdintruke	Berdinsarearen 15. urteurrena ospatu da eta gaikako hiru saio egin dira: «Jai berdinzaleak» (Bilbo), «Ikuspegi feminista duen tokiko zaintza-eredu baterantz» (Eibar) eta «Indarkeria matxistaren eremuan esku-hartze integrala eta koordinazioa Emakumeen Etxeen eta ahalduntze-programen bidez» (Amurrio).
Webinarra	Indarkeria matxistaren biktimen erreparazioari buruzko mintegi bat egin da, hainbat udal-estamenturi zuzendua (azaroaren 25ari lotutako jarduerak).
Atxikimenduak eta harrera-planak	Astigarraga, Oion eta Errearteria udalerriek Berdinsarearekin egindako atxikimenduak hartu eta kudeatu dira, baita Araiako Kuadrillako udalerrri txikiak (Artzinega eta Okondo) biltzen dituen lehen atxikimendu kolektiboa ere. Aiarako Kuadrillan eta Arraia-Maetzun ere egin da harrera-plana.
Sareko udalerrietan eguneratutako konpromisoen egoeraren azterketa	Azterlanari esker, udalerrri bakoitzaren egoera zein den jakin ahal izan da, eta konpromiso horiek eguneratzeko proposamenak egin dira, premia hauteman den kasuetan.
Informazio-buletina	2021ari dagokion informazio-buletina diseinatu da, Berdinsareak garatutako jarduerak eta beste albiste interesgarri batzuk zabaltzeko.
Berdinsarearen intraneta, irudia eta webgunea eguneratzea	2021ean amaitu zen 2020an hasitako prozesua.



**BIZTANLE GUTXIKO UDALERRIEI LAGUNTZEA, BERDINTASUN-POLITIKAK GARA DITZATEN:** Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, batez ere biztanle askoko udalerrietan. Hala ere, udalerrri txiki gehienentzat zaila da sare horretan sartzea, sartzeko betekizunengatik -besteak beste, langileak kontratatzea, berdintasun-planak egitea eta berdintasun-politiketarako aurrekontua bideratzea-.

Horregatik, 2011tik Emakundek eta EUDELeK lankidetzeta-hitzarmenak sinatu dituzte, biztanle gutxiko udalek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko politikak martxan jar ditzaten, Berdinsarearekin koherentea izango den estrategiarekin bat etorriz eta epe ertainean sare horretan sartu ahal izateko beharrezko diren baldintzak sortzen saiatzeko.

2018tik, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako eta hainbat udalerrri txiki biltzen dituzten kuadrilla eta/edo mankomunitateetako teknikariak elkartzen dituen batzorde tekniko bat dago.

2021ean, udalerrri txikietan berdintasun-estrategia egituratzeko gidaren edukiak garatzen jarraitu du batzordeak, iaz hasitako lanei segida emanez. Gidak elementu teorikoak zein praktikoak biltzen ditu, EAEko udalerrri txikiei genero-mainstreaminga txertatzen laguntzeko.

Gainera, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan berdintasun-politikak antolatzeko laguntza eta aholkularitza eskaini da. Kontsulta asko izan dira tokiko gobernuek Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren funtsak erabiltzeaz, eta, esparru horretan, dirulaguntzak taldekatzea eta programak partekatzea gomendatu da, lurralde-irismen eta eragin handiagoa izan dezaten.

**VIRGINIA WOOLF BASQUESKOLA:** Generation Equality proiektuan parte hartu izanak markatu du 2021ean Basqueskolaren ekintza-plana. Proiektu hori NBE Emakumeak erakundeak bultzatu du nazioartean, eta Emakundek gidatu EAEn. Horretarako, lan-batzorde bat sortu da eta bi lan-jardunaldi egin dira. Bereziki, mugimendu eta lidergo feministen ardatza lantzen ari dira, NBE Emakumeak erakundearen Ekintza Koalizio globalak identifikatutako lehentasunezko 6 eremuetako bat.



Basqueskola.



Horrez gain, Basqueskolaren jarduna honako hauetan oinarritu da 2021ean:

JARDUKETAK	DESKRIBAPENA
Basqueskola Sarearen lanaren jarraipena	Virginia Woolf Basqueskolaren estrategiaren buru den Hautetsien Sarea da Basqueskola Sarea. Talde eragile anitza du, eta EAEko udalerrietako sentsibilitate guztietako ordezkari diren emakume hautetsiak biltzen ditu, baita gaikako hiru lan-batzorde ireki ere (sareak eta aliantzak; emakumeen aurkako indarkeria politikagintzan; eta harrera eta laguntza).
Bidelagun mentoring-programaren ebaluazioa	2019-2020 aldian garatutako esperientzia pilotua ebaluatzeko, 2021ean saio bat egin zen Bidelagun programan parte hartu zuten aholkulariekin eta Basqueskola Sareko parte-hartzaileekin.
Jardunaldiak antolatzea	Online jardunaldi bat antolatu zen, aztergai honekin: emakumeen aurkako indarkeria politikagintzan, beharrezkoa baita sakon aztertzea, eta horri erantzutea. Era berean, 2018az geroztik egin den bezala, Basqueskola izeneko urteroko jardunaldia antolatu zen, «Beijing + 25 Generation Equality: emakumeak eta lidergoa» gaiarekin.
Prestakuntza-arloko eskaintza kudeatzea	2021ean honako hauek egin dira: «Sare sozialak: komunikazioa ahalduntzearen ikuspegitik» tailerra, «Coachinga eta lidergoa» aurrez aurreko ikastaroa, eta «BasqueAdituak» prestakuntza-pilulen programa, 2020an prestakuntza-laguntza eskaintzeko ekimen gisa sortua, emakumezko hautetsien arteko elkartasunean eta ezagutza-trukean aurrera egiteko.
Komunikazio-estrategia	Virginia Woolf Basqueskolaren komunikazio birtuala bere webgunean eta buletin digitalean ardatzu da, baita edukiak Facebook eta Twitter sare sozialetan zabaltzean ere. Gainera, 2022an bere sorreraren hamargarren urteurrena dela eta, «Basqueskola 10 urte» egutegia prestatu da.
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako nazioarteko agendara doitzea	Ildo horretan, nabarmentzekoa da Basqueskolak hainbat ekimenetan parte hartu duela, hala nola Generation Equality jardunaldian, Emakumeen eta gizonen toki-bizitzako berdintasunerako Europako gutunaren 15. urteurrenean, Commonwealthko Tokiko Gobernuen Foroan, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluan, Uruguaiako Emakumearen Institutuarekiko Trukean eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan.

### BERDINTASUNAREN ALDEKO TOKIKO GIZONEZKO HAUTETSIEI LAGUNTZEKO PROGRAMA:

Gizonduz ekimenaren laguntzarekin, programa hau 2017an jarri zen martxan, berdintasunaren aldeko alkateen talde eragile bat sortuta. 2017-2019 urteen artean garatutako sentsibilizazio-, prestakuntza- eta truke-prozesu baten ondoren, ekimena ez aurrera ez atzera geratu zen 2019ko udal-hauteskundeetan ostean tokiko gobernu berriak eratzen ari zirela-eta, eta pandemiaren agerpenaren ondorioz.

2021ean lanari ekin zitzaion berriro, eta tokiko gizonezko hautetsien kontraste-talde bat jarri zen abian, gizonezko politikariei zuzendutako berdintasun-gida bat argitaratzeko proiektuan laguntzeko. Berdinsareko

alkateak, EUDELeko Batzorde Betearazleko alkateak eta aurreko faseko talde eragileko partaideak gonbidatu ziren parte hartzera. 2021ean, gida egiteko, 3 lan-saio egin dira online, azkena Eusko Jaurlaritzak eraturako kontraste-taldearekin batera.

Gizonezko tokiko hautetsiez gain, erakunde guztietako beste kargudun batzuek ere parte hartu dute prestakuntza-elkarrizketa eta -topaketetan, eta horien berri eman da Gizonduz ekimenari buruzko atalean.



## 2.9. Udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei zuzendutako dirulaguntzak

Dirulaguntza-deialdia da Emakundek udalerriei laguntza teknikoa emateko erabiltzen duen beste tresna bat. Tokiko erakundeei ematen zaizkie dirulaguntza horiek, emakumeen eta gizonen egoeraren udalerrian udalerriko diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeko, EAerako Esparru Planaren ildo nagusiei jarraituz.

2021eko deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 500.000 eurokoa izan da, eta 48 proiektu diruz lagundu dira; proiektu horiek 44 udalerrri eta 3 mankomunitate, kuadrilla eta/edo multzorenak dira<sup>8</sup>.

## 2.10. Berdintasun-planak: txostenak eta aholkularitza

4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Emakundek foruzekin toki-administrazioen berdintasun-planari buruzko txostenak egin behar ditu, eta txosten horietan, planen edukiak Jaurlaritzaren plan orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren adierazi.

Txosten horiek egiteko, Emakundek hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako plan orokorreko helburu eta estrategien arabera diseina daitezzen: erakunde bakoitzaren berezko beharrezko diagnostikoan oinarrituta egotea; alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta denbora aldetik plan bideragarriak izatea; eta diagnostikoan definitutako errealitate sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

Aurten, toki-erakundeetan berdintasuna sustatzeko 15 planen gaineko txostenak egin dira. Hurrengo taulan datoz zehaztuta:

Lehen Planak	Bigarren Planak	Hirugarren Planak	Laugarren Planak	Bostgarren Planak	Seigarren Planak
Aulestiko Berdintasunerako I. Plana (2022-2025)	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2020-2024) Busturiko Udala	Abadiñoko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2021-2024)	Arrigorriagako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana (2021-2024)		Bizkaiko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Foru Plana (2021-2024)
	Mendaroko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2021-2024)	Amorebieta-Etxanoko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2021-2023)	Barakaldoko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana (2021-2025)		
	Oñatiko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2021-2026)	Ordiziako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2021-2024)	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana. Gernika-Lumo. (2021-2024)		

8. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 1. eranskina.



Lehen Planak	Bigarren Planak	Hirugarren Planak	Laugarren Planak	Bostgarren Planak	Seigarren Planak
		Urnietako III. Berdintasun Plana (2021-2025)	Laudioko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana (2021-2024)		
		Urola Garaiko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2021-2026)			
		Zaldibarko Udaleko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2021-2024)			





### 3. ESTATU MAILAKO LANKIDETZA ETA NAZIOARTEKOTZEA



Egungo testuinguru globalean, Emakundek aldaketa-eragile aktibo eta erreferentziazkoa izan nahi du emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean, bai EAEn bai EAetik kanpo. Horretarako, gero eta indar handiagoz dihardu Estatuko beste administrazio batzuekin elkarlanean, baita nazioarteko erakundeekin elkarlanean ere, 2019an onartutako nazioartekotze-planaren eta Euskadi-Basque Country 2025 Estrategiaren esparruan.

Aliantzak ezartzeak eta elkarlanerako estrategiak sortzeak aukera ezin hobea ematen dio Emakunderi, ezagutza eta baliabideak erakarri eta trukatzeko eta EAE nazioarteko ekintzan nabarmen kokatzeko, garapen jasangarriko nazioarteko agendaren helburu globala betetze aldera: sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea lortzea. Hori guztia, mundu globalizatu batean emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria arazo unibertsalari aurre egiteko funtsezko bide gisa.

### 3.1. Estatuko berdintasun-arloko erakundeekiko lankidetzaz-ildoak

Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak eta Emakundeko zuzendariak parte hartu dute Berdintasuneko Konferentzia Sektorialak deitutako bileretan (apirilaren 19an, ekainaren 23an eta azaroaren 11n). Konferentzia Sektorialean ordezkaturata daude bai Espainiako Gobernua, Berdintasuneko ministroaren eta haren lantaldearen bitartez, bai Estatuko autonomia-erkidego guztiak.

Lan-esparru horretan, Emakundek honako hauetan ere hartu du parte:

- Berdintasunerako Batzorde Sektorialaren 3 bileretan (otsailaren 10a, maiatzaren 14a eta azaroaren 18a), Berdintasuneko estatu-idazkariak deitutakoetan (Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren lan- eta laguntza-organo orokorra).



Berdintasunerako Konferentzia Sektoriala.



- Azaroaren 5ean, Gaiakuntza-tituluari buruzko autonomia-erkidegoetako Lantaldearen bilera batean, genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatzeko sistemak abian jartzea ahalbidetzen duten oinarritzko prozedurak jorrazteko.

Bestalde, lankidetzak hauek egin dira beste autonomia-erkidego batzuetako berdintasun-erakundeekin:

- **Andaluziako Emakumearen Institutua:** Andaluziako Emakumearen Institutuaren bisita jaso zen, maskulinitateen eta berdintasunaren arloko ezagutzak eta esperientziak partekatzeko.
- **Nafarroako Berdintasunerako Institutua:** Informazio-saio bat egin zen Nafarroako Berdintasunerako Institutuko (NABI) Ikerketa, Berrikuntza eta Ezagutzaren Kudeaketa Ataleko arduradunarekin, EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren metodologia, euskarri informatikoak eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleen sistema aztertzeko.

## 3.2. Europaren proiektuari laguntzea

Europa mailan honako lankidetzak-jarduketak hauek egin dira:

### **GENERO BERDINTASUNAREN EUROPAKO INSTITUTUA (EIGE).**

EIGEREkin lankidetzan aritu gara genero-sentikorra den kontratazio publikoari buruzko gida bat eta beste material batzuk prestatzen; lan horretan, Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzaren esperientziari buruzko informazioa eman dugu, jardunbide egokitzat jo baita, eta ekainaren 3an, 8an eta 11n arlo honetan nabarmentzen diren aditu eta erakundeei zuzendutako mintegi birtual batean parte hartu dugu.

### **EUROPAKO ITSAS ETA ARRANTZA ESQUALDEEN KONTSEILUA.**

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin lankidetzan, Europako Itsas eta Arrantza Eskualdeen Kontseiluko emakumeen eta

gizonen berdintasuna sustatzeko lantaldearen liderra izaten jarraitu du. 2021eko Berdintasunari buruzko Adierazpen Politiko bat egin da, zeina ekainean onartu baitzen Europako Itsas eta Arrantza Eskualdeen Kontseiluaren Bulego Politikoan. Era berean, irailean, «Setting the Scene: EU and Gender Equality in the time of Recovery» izeneko webinarra antolatu zen, eskualdeek berdintasun-esparruan, -ekimenetan eta -eztabaidetan EBri egin diezaioketen ekarpena ezagutzeko.

### **BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEEN EUROPAKO SAREA (EQUINET).**

Emakundek 2021eko azaroaren 19an EQUINETek antolatutako online hitzaldi batean parte hartu zuen, «Promoviendo la integración de la igualdad en el diseño de políticas» izenekoan. Bertan, Eusko Jaurlaritzako sailen, foru-aldundien eta toki-erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzeko egindako lanaren eta mekanismoen berri eman zuen.

Era berean, 2021eko urriaren 25ean eta 26an egindako online hitzaldi batean parte hartu zuen, «Construir ciudades igualitarias: promoviendo



Kontratazio publikoari buruz EIGEk antolatutako topaketa birtualak.



la igualdad y haciendo frente a la discriminación desde el ámbito local» izenekoa. Bertan, Emakundek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatzeko egiten duen lanaren berri eman zuen, bereziki, bere legegintza-funtzioaren bidez eta Eudel-Euskal Gizataldeen Elkartearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udal eta Toki Erakundeekin lankidetzan egiten duen lana nabarmenduta.

### 3.3. Nazioarteko lankidetzaz

Nazioarteko lankidetzari dagokionez, honako jarduera hauek egin dira, adierazita dauden eragileekin:

**NBE EMAKUMEAK:** 2019an bezala, 2021ean ere Emakundek NBEk antolatzen duen Emakumearen Batzorde Juridiko eta Sozialaren (CSW) ekitaldi ofizial batean parte hartu du; zehazki, batzorde horren 60. edizioan herrialdeetarako ezarritako helburuak berrikustekoan. Ekitaldi horretan, Espainia borondatezko herrialde berrikusle gisa aurkeztu zen, eta, testuinguru horretan, EAEk bere berdintasun-politikak azaldu zituen munduko herrialde guztietako ordezkartzen aurrean.

Euskadiren Estatu Batuetako eta Mexikoko ordezkartzeekin lankidetzan, NBE Emakumeak erakundearekin eta nazioarteko beste zenbait erakunderekin zein herrialderekin elkarlanean aritu gara, Beijingo Emakumeen IV. Munduko Biltzarraren 25. urteurrenaren esparruan egindako jardueretan parte hartzeko. EAEn, «BEIJING+25etik Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Herri Itunera» proiektua abiarazteko jardunaldia egin zen, NBE Emakumeak erakundeak New Yorken duen egoitza nagusiko ordezkari Prya Álvarezekin parte-hartzearekin.

**UNFPA:** Era berean, Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta neskentzako oinarritzako zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratu Globalean parte hartzen jarraitu da, finantzaketa emanez. Programaren garapenari laguntzeko, dirulaguntza izendun bat eman

zaio Nazio Batuen Biztanleria Funtzari; izan ere, funts horrek bideratzen du proiektua, NBE Emakumeak erakundearekin batera.

*WE DECIDE* programa finantzatzen eta bertan parte hartzen ere jarraitu da, dirulaguntza izenduna emanez. Programa horrek desgaitasuna duten emakumeen eta gazteen giza eskubideak eta gizarteratzea sustatzen ditu. Hauek dira programaren erdiguneko gaiak: sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea, desgaitasuna duten pertsonen informazioa eta hezkuntza, baita sexu- eta genero-indarkeria prebenitzeko eta jorrazteko ere.


Dauden bi dirulaguntza-ildoez gain, 2021ean Emakunde Genero eta giza eskubideen dibisio globaleko arduradunarekin bildu da.

**NBGP:** Gainera, Nazio Batuek Latinoamerika eta Kariberako Garapenerako duten Programaren Genero Atalarekin batera lan egin dugu, Tokiko Garapen Ekonomikoan genero-ikuspegia txertatzeko estrategian. «Desarrollo económico local: sostenibilidad e igualdad de género en la recuperación de la crisis» (DELGEN) izeneko tailerlean parte hartu da.

**EUSKADIREN KANPO ORDEZKARITZAK: Mercosur - Argentinako Ordezkaritzarekin** aldebiko lan-agendak garatu dira: Argentinako Euskal Etxeei zuzendutako berdintasunari buruzko prestakuntzaren lehen edizioan parte hartzea; Uruguaiako Emakumeen Institutuarekin hainbat bilera, Virginia Woolf Basqueskola proiektua ezagutarazteko; eta bideokonferentzia bat Argentinako Ekoizpen Ministerioko Berdintasun arduradunarekin, Berdintasunaren esperientziaren berri emateko; berdintasunaren aldeko enpresen Bai Sarea; enpresetan berdintasun-planak ezartzeko proposamenaren ebaluazioa; eta Emakundek enpresarloan maskulinitateekin egindako lana. Gainera, hainbat bilera egin dira online Montevideoko Intendentziaren Genero-berdintasunerako Aholkularitzako Zeharkakotasun eta Ahalduntze Arloarekin, 2019an hasitako lankidetzari jarraipena emanda.



**Txileko, Peruko eta Kolonbiako ordezkariarekin,** Emakundek sinatutako bi lankidetzak memorandua garatzen jarraitu da, hurrenez hurren, Familien Fundazioarekin, Txileko Presidentetzako Fundazioen Sarearekin, eta Txileko Gobernuako Emakumearen eta Genero Berdintasunaren Ministerioarekin. Esparru horretan, jarraipen-bilera birtual bat egin da gobernu horretako ministroarekin, eta bi bideokonferentzia egin dira, bata *Gizonduz* programarekiko lankidetzaren jarraipena egiteko, eta bestea, *Nahiko* programari buruzkoa, Sernamegeko zein Familien Fundazioko arduradunekin, hezkidetzak sustatzeko. Integra Fundazioaren eta Familien Fundazioaren «Infancia y equidad de género en la crianza: avances y desafíos» webinarrean ere parte hartu du Emakundek. Era berean, Kolonbiari dagokionez, bilera bat egin da Cundinamarca gobernuaren arduradun instituzionalekin, EAEko berdintasun-politikak ezagutzeko.



Berdintasunaren arloko prestakuntza Argentinako Euskal Etxeentzat.

**Mexikoko Ordezkaritzarekin,** lanean jarraitu da emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta desagerrarazteko Mexikoko gobernuaren Batzorde Nazionalarekin Lankidetzak Memorandua garatzeko, baita Mexikoko Estatuko Gobernuaren gobernuarekin ere (EDOMEX), Emakundek bultzatutako politikak eta programak ezagutzeko.

CONGOPEren (Ekuadorko probintzia-gobernadoreen elkarte) eta Emakunderen berdintasun-politikei buruzko esperientzia-truke batean ere parte hartu da.



Bilera Emakumearen eta Genero Berdintasunaren Ministra txiletarrarekin.





## 4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA



Emakumeek politika publikoen diseinuan parte hartzeko beharrak onarpen-maila handia dauka. Zehazki, emakumeen ahalduntze soziopolitiko eta solaskidetzaren funtsezko estrategia da berdintasuna eraikitzeko orduan. Horregatik guztiagatik, Emakunderen lehentasunezko lan-ildoetako bat emakumeen sare asoziatibo eta feminista sustatzea eta indartzea da, elkarrizketetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko, berdintasun-politikak nahiz bestelako politika publikoak diseinatzeko orduan.

## 4.1. Emakundeko Aholku Batzordea

Aholku Batzordea emakumeen elkarteek parte hartzeko eta elkarrizketarako duten organoa da. 1993an hasi zen esperientzia pilotu gisa, eta 1998ko ekainaren 9an arautu zen. Ibilbide luzea izan du eta hainbat mugarri historikotan parte hartu du, EAEko berdintasun-politiken garapenean eragiteko. Batzorde horretan, lurralde osoko



Emakundeko Aholku Batzordea.

## 4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA

elkarteak daude ordezkatuta, batzordea arautzen duen dekretuak<sup>9</sup> ezarritako bideak erabilia.

Gizartean, emakumeen mugimendu asoziatibo eta/edo feministetan eta, oro har, emakumeen parte-hartze soziopolitikoan gertatu diren bilakaerak eta aldaketek Aholku Batzordearen lana egokitzea eragin dute. Ildo horretan, aurrerapausoak eman dira honako hauei dagokienez: parte-hartzearen ezaugarriak eta kalitatea; komunikazio-erloko eraginkortasuna eta inpaktua, urteko programazioak izango dituen komunikazio-plan baten bidez; parte hartzeko prozedura, bai batzordearen berezko espazioetan, bai Eusko Jaurlaritzako gainerako organo edo batzordeetan (Aholku Batzordeko ordezkariak parte hartzen dute bertan).

2021 honetan, COVID-19ak sortutako egoera dela eta, koordinazio-metodologia egokitu da, eta saio birtualetara eta informazioa telematikoki trukatzera bideratu behar izan da, jarduera eten ez zedin.

- **OSOKO BILKURA:** 2021eko abenduaren 20an deitu da Aholku Batzordearen osoko bilkura. Osoko bilkura horretan, Emakundek garatutako jardueren berri emateaz gain, 2021eko komunikazioaren arloko urteko lan-programaren emaitza eta 2022rako lan-lehentasunak aurkeztu dituzte. Aholku Batzordearen izenean hainbat esparrutan parte hartuko duten elkarteetako ordezkarien aurkezpena egin da, eta, aldeztatik aztertuta, egin beharreko proposamen-ekarpenak egin dira.
- **LURRALDEARTEKOA:** Lurralde arteko Batzordearen lana areagotu da eta bileren izaera operatiboa hobetu da. Lurraldearteko lan-saioak egin dira proiektu zehatzak garatzeko eta erakunde-espazioak prestatzeko eta horietan parte hartzeko. Eduki eta masa kritiko handiagoa sortu da hiru lurraldeetako ordezkarien artean, eta eragin soziopolitiko, gainera, areagotu egin da. 2021ean 30 bilera baino gehiago egin dira.

9. Ekainaren 9ko 103/1998 Dekretuak arautua.



- **LURRALDEKO A HOLKU AZPIBATZORDEAK:** Aholku Azpibatzerde bakoitzean ordezkarien parte-hartzea sendotzeko ekimenak abiarazi dira, elkarriketarako gunen xedea eta hartako parte-hartzearen eraginak ezagututa eta onartuta. Gutxienez hilean bilera bat egin da lurralde bakoitzean.

100 bilera baino gehiago egin dira hiru lurraldeetan, baita lurraldearteko bilerak ere, eta unean-unean jorratu behar ziren gaiak prestatzeko bilera informalak ere egin dira.

Aholku Batzorderen lan-esparruan, ahalegin berezia egiten da lankidetzaren bultzatzeko, parte hartzen duten elkarten artean sareak sortzeko eta askotariko diskriminazioak pairatzen dituzten emakumeen kolektiboak biltzen dituzten elkarteekin lan egiteko (hala nola emakume alargunak, landa-eremuko emakumeak, emakume ijitoak edo emakume migratzaileak).

#### **PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA:**

2021eko apirilaren 14an agerraldia egin da Legebiltzarrean, Aholku Batzordeak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuari egin dizkion ekarpenei lotutako emaitzak azaltzeko.

Ebaluazioaren esparruan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen betetze-maila baloratzeko prozesuan parte hartu da.

#### **4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA**

Emakunderen edo Eusko Jaurlaritzaren gainerako organo aholku-emaile edo sektorialetan parte hartzen jarraitu da, Aholku Batzordearen ordezkari baten bidez: Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua, Berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren Epaimahaia, Begira Batzordea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.

#### **KOMUNIKAZIOA:**

Aurreko urteetan bezala, Emakundeko Aholku Batzordearen esparruan sortutako elkarriketa-egituretan emakumeen elkarten komunikazioa errazteko programa ezartzen jarraitu da.

Komunikazio-baliabide eta -euskarriak garatu dira, berriak eta/edo existitzen direnak oinarri hartuta, batzordea interes-talde desberdinekin harremanetan egotea errazte aldera.

Urteko lan-programan adostutako ekintzen abiaraztea eta lan-baliabide berrien garapena izan dira euskarriak.

2022rako komunikazio-arloko lan-programa egiteko lanean parte hartu da.

Eta hobekuntzak identifikatu dira barne-protokolo eta -prozeduretan, pandemia-egoerara egokitzeko.

#### **PRESTAKUNTZA:**

Aurreko urteetan bezala, Aholku Batzordean jarraipena eman zaio elkarteetako ordezkarien prestakuntza-programari, honako arlo hauetan: politika publikoak, partaidetza, emakumeen herritartasuna eta elkarriketa soziopolitikoak.



**LANKIDETZA:**

NBE Emakumeak buru duen «Generation Equality» nazioarteko ekimenaren esparruan Emakundek sustatutako konpromisoa aurkeztu da. Konpromiso hori Aholku Batzordeko eta Gazteriaren Euskal Kontseiluko ordezkariak osatutako lantaldearen hausnarketa- eta elkarrizketa-prozesuaren emaitza da.

Era berean, modu aktiboan parte hartu da Nafarroako berdintasun Kontseiluko eta Aholku Batzordeko ordezkarien arteko hausnarketa- eta lan-gune batean.

## 4.2. Emakumeen elkarte, fundazio eta federazioentzako dirulaguntzak

Erakundeen proiektuak eta/edo jarduerak antolatzeko laguntza ekonomikoa ematen jarraitu da, emakumeen irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazioei, eta emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzen laguntzea helburu eta jardun-eremu bakarra duten emakumeen fundazioei zuzendutako dirulaguntzen urteko deialdiaren bidez. Helburua emakumeen ahalduntze pertsonala, talde mailakoa, soziala eta politikoa sustatzea eta garatzea da, genero-ikuspegia daukaten parte hartzeko prozesuen bitartez. Emakundek behar duten laguntza tekniko ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai dirulaguntzak izapidetzeko prozesuan.

2021eko deialdira aurkeztu diren 136 elkarteetatik 123k jaso dute dirulaguntza<sup>10</sup>. Guztira, 184 proiektu lagundu dira diruz, eta 400.000 euro erabili dira horretarako.

## 4.3. Elkarteekin egindako proiektuak eta lankidetzaz-ildoak

EAEko beste elkarte batzuekin lankidetzan jarraitu dugu, eta diruz lagundu ditugu hainbat eremu sozial eta kulturaletan emakumeen eta feminismoaren bultzada, parte-hartzea eta ekarpena sustatzera eta aitortzera bideratutako proiektuak.

Hona hemen nabarmendu behar diren proiektu batzuk:

- **BERTSOZALE ELKARTEA:** emakume bertsolarien partaidetza eta ahalduntzea sustatzeko prestakuntza-jardueren bidezko elkarlanari eutsi zaio, bertsolaritzan genero-ikuspegia txerta dadin bultzatzeko.
- **MAITE ALBIZ EMAKUMEEN DOKUMENTAZIO ZENTROA:** emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako dokumentu-funtsak kudeatzeko, eskuratzeko, digitalizatzeko eta zabaltzeko lankidetzari eutsi zaio.
- **ZINEMA IKUSEZINAREN JAIALDIA:** Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GGKEak antolatutako «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiarekin elkarlanean jarraitu da, Emakume Errealizadore Onenaren sariari dagokionez.

10. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 2. eranskina.



## 4.4. Beste baliabide lagungarri batzuk

### EMAKUMEAK SAREAN:

Askotariko prestakuntza eta aholkularitza eman zaie emakumeen elkarte eta federazioei eta/edo federazio zein elkarte feministei, Emakumeak Sarean ekimenaren barruan. Ekimen hori 2011n sortu zen, «Euskadi Informazio Gizartean Plana, 2010: Euskadiko Agenda Digitala» planaren bidez. Emakumeen elkarte eta kolektiboentzako prestakuntza digitala errazteko eta haien artean jardunbide egokiak trukatzeko jarri zen abian.

Informazio-teknologiaren erabilerari buruzko oinarrizko ezagutzak emateko prestakuntza-saioren ondoren, tele-izapidetze elektronikoan prestatzeko premia hauteman zen; izan ere, elkarteak administrazio publikoarekin telematikoki harremanetan jartzera behartzen zituen Estatuko legeak.



Emakumeen elkarteekin online saioa.

## 4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA

Prestakuntza digitala errazteko bidean aurrera, 2021ean erakundeen lanari ikusgarritasun handiagoa ematen laguntzea izan da helburua, eta, bide horretan, bi prestakuntza eskaini dira, zeintzuetan 47 emakumek parte hartu baitute guztira:

- Ikusizko garapenerako Canva tresna
- Sare sozialen erabilera, eta sareetan pribatutasunaren kudeaketa.

### EMAKUMEEN ELKARTEEN GIDA:

EAEko Emakumeen Elkarten Gida eguneratzen jarraitu da, direktorio bat eskaintzeko eta emakumeen elkarten jarduketa-esparruak herritar guztiei edo interesa duten erakundeei ezagutarazteko.



Gaitasun digitalei buruzko prestakuntza emakume-elkarteentzat.



## 5. GIZARTEAREN SENTSIBILIZAZIOA



Gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu batera eraldatzeko bidean, herritar guztiak dira Emakunderen lan-ildo garrantzitsuen hartzaile nagusiak.

Berdintasunaren helburua lortzeko, hain errotuta ditugun emakumeen eta gizonen jokabide-eredu soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu egin behar dira, eta genero-rolen esleipen soziala murriztuko duten beste batzuekin ordezkatu; zaintza-lanen behar soziala, erantzukizun partekatua eta balio sozioekonomikoa aintzatesteko, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotzeko, eta bi sexuei balio eta prestigio berdina emateko.

Ildo horretan, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen, haurren eta, oro har, gizarte osoaren sentsibilizazioa lantzea, baita gako diren eragile sozialena eta eragina duten beste erakunde batzuen ere. Helburua lortze aldera, Emakundek hainbat proiektu, programa eta kanpaina sozial bultzatzen ditu.

## 5.1. Generation Equality

Generation Equality ekimena NBE Emakumeak erakundeak diseinatu zuen Beijingo Emakumeen IV. Mundu Konferentziaren 25. urteurrena ospatzeko. EAEn 2021. urteaz gozotik bultzatzen ari da ekimena, Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Herri Ituna lortzeko helburuz. Ituna bera eta horrek emakumeen eta gizonen berdintasunean dakarren bultzada Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak dira, eta gobernu-programan jasota daude.

Berdintasuna talde-lana dela eta inor atzean geratu behar ez delako premisan oinarrituta, 2021eko apirilaren 26an Emakundek gonbidapena egin zuen, eta mota askotako ia 100 erakundek bat egin zuten ekimenarekin, helburu argi bat lortzeko asmoz: gure herriak (eta bertako eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiek) berdintasunaren alde

duen konpromisoa berraktibatzea, barne-hausnarketarako prozesuak abian jarriz eta/edo, oro har, EAEko gizarteko beste erakunde batzuekin elkarlanean arituz, betiere belaunaldiarteko ikuspegi interseksionala oinarri hartuta. Ekimen horren bidez, 2026rako lortu beharreko konpromiso zehatz batzuk ezarri nahi dira, etorkizunean Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Herri Ituna sortzeko oinarri ezartzeko.

Erakunde parte-hartzaileek eskura izan zituzten bai ezarritako ibilbidea eta lan-metodologia, bai erreferentziako materialak, betiere belaunaldiarteko ikuspegi interseksionalean oinarritutakoak. Ibilbidea Gazteriaren Euskal Kontseiluarekin eta Emakundeko Aholku Batzordearekin landu zen aldez aurretik, bi erakundeetako ordezkarien arteko belaunaldiarteko transmisio-esperientzia interseksional batean.



Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako Itun Sozial eta Herritarraren aurkezpena.



2021ean, proiektuak laguntza teknikoa eskaini zien parte hartu zuten erakundeei; 3 webinar egin ziren, baita banakako orientazioa eskaini ere (46 saio), eta proiektuaren parte diren erakundeetako 452 ordezkariengana (371 emakume eta 81 gizon) eragin zuzena izan zuten horiek guztiek. Gainera, proiektua zeharka landu da Emakunderen hainbat lan-esparrutan, eta horren berri eman da memoria honetako hainbat ataletan.

## 5.2. Nahiko programa

Nahiko programa hezkidetzeta-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. Programan eskola-egutegiaren arabera lan egiten da, bi ikasturtetan.

Deialdia Hezkuntza Sailarekin batera egiten da, EAEko hezkuntza-



Nahiko hezkuntza-programa.

sistamarako hezkidetzaren II. Planaren esparruan, berdintasunaren eta tratu onerako bidean. 2019/2021 edizioan, 49 ikastetxetako 2.876 neska eta 3.077 mutilek hartu dute parte, eta laguntza eta gaikuntza eman zaie. 2021/2023 edizioan, berriz, 31 ikastetxek hartu dute parte; guztira, 1.737 neska eta 1.952 mutilek.

2021ean honako jarduketak hauek egin dira:

**ONLINE HITZALDIAK:** 5 hitzaldi egin dira online:

- 2021/02/26: Andrea Momoitio «Los medios de comunicación desde el punto de vista de la coeducación». Hauek eman dute izena: 162 emakumezko eta 7 gizonetzko.
- 2021/03/11: Ibai Fresnedo «Ikasle mutil berdinzaleak hezteko erronka». Hauek eman dute izena: 145 emakumezko eta 12 gizonetzko.
- 2021/05/14: Coral Herrera Gómez «Quererse bien: herramientas para disfrutar del amor del bueno». Hauek eman dute izena: 147 emakumezko eta 8 gizonetzko.
- 2021/05/18: Amelia Barquin López «Euskararen erabilera ez sexistarako gakoak eta proposamenak». Hauek eman dute izena: 137 emakumezko eta 8 gizonetzko.
- 2021/11/19: Amparo Tomé González: «Con ojos de niña y con ojos de niño: la mirada coeducativa del profesorado». 136 emakumek eta 7 gizonen eman dute izena.

**HIRU HILEAN BEHINGO MINTEGIAK:** 20 mintegi egin dira hiru hilean behin. Mintegiotan berariazko prestakuntza eman da, hiruhileko bakoitzean landuko diren unitate didaktikoak ezagutarazi dira, digitalizatutako material berriak probatu dira eta aurreko hiruhilekoko esperientzia ebaluatu da. Mintegietan 134 irakaslek hartu dute parte guztira.



**BABESA ETA JARRAIPENA:** Banakako laguntza eman eta segimendua egin da, ikastetxe partaideek halaxe eskatuta.

**MATERIALEN DIGITALIZAZIOA:** Programan digitalizatutako materiala dago unitate didaktikoak gauzatzeko, eta horretarako erabileran edo martxan jartzean sor daitezkeen behar informatikoetarako aholkularitza ematen da.

**HAUR HEZKUNTZARAKO PLAN PILOTUA:** 2019/2021 edizioan, Haur Hezkuntzako 3-6 urteko etaparako plan pilotu bat ezartzeko proposamena egingo da. Talde pilotua 2019an sortu zen, eta 2020an egin zuen lehendabiziko saioa. 2020rako programatutako bigarren saioa 2021eko lehen hiruhilekora atzeratu zuten, osasun-krisia zela eta.

### 5.3. Gizonduz ekimena

2007an sortutako Gizonduz ekimen aitzindariaren xedea da gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezzen sustatzea. Honako helburu hauek ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek pairatzen duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna areagotzea.

2021ean honako jarduketak hauek egin dira<sup>11</sup>:

**SENSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-PROGRAMA.** 2009. urtean jarri zen martxan programa hau, eta 20.336 pertsona pasa dira bertatik (gizonezko gisa identifikatu diren 11.380 pertsona, emakumezko gisa identifikatu diren 8.740 pertsona, ez-bitar gisa identifikatu diren 112 pertsona eta gai horri erantzun ez dioten 104 pertsona). Ikastaro multzo bat da: aurrez aurreko ikastaroak eta Internet bidez egitekoak; doakoak dira, eskaintza zabala eta askotarikoa dute, eta moldagarriak eta malguak dira. Emakumeek parte hartzeko aukera badute ere, interes pertsonala duten edo ikuspegi profesionaletik, emakume eta gizonen berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen jakin nahi duten edo gai horretan prestatu nahi duten gizonentzat bereziki zuzendutako ikastaroak dira. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola osasuna, zainketa, aitasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa...

2021ean 466 prestakuntza-ordu eman dira aurrez aurre, eta, guztira, 1.612 pertsonak parte hartu dute. Parte-hartzaileak honela bana daitezke: gizonezko gisa identifikatu diren 1.000 pertsona eta emakumezko gisa identifikatu diren 579 pertsona, ez-bitar gisa identifikatu diren 11 pertsona eta gai horri erantzun ez dioten 22 pertsona. Bestalde, 2021ean, 218 lagunek (79 gizonak eta 139 emakumeak) amaitu dute 10 orduko online sentsibilizazio-ikastaroa. Azkenik, hainbat erakunderekin lankidetzan (IVAP, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta EHU) maskulinitateei buruzko online ikastaroaren 10 edizio egin dira. Guztira, 337 pertsonak gainditu dute ikastaroa (207 emakumeak eta 164 gizonak).

Gainera, Gizonduzen online prestakuntzarako sarbidea eman zaie Montevideoko (Uruguai) Intendentziaren Genero Berdintasunerako Aholkularitzako eta Txileko Familien Fundazioko pertsonari, erakunde horiekin garatzen ari den lankidetzari-ildoaren esparruan.

11. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu Gizonduz ekimenaren jardueraren memoria.



**«GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA:** Proiektu horren bitartez nerabe eta gazteen eta, bereziki, gizonen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatu nahi da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra; horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak erabiltzen dira, teknologia berrietan oinarrituta. Atal hauek ditu proiektuak:

- Online abentura grafiko bat (bideojoko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta abar izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Unitate eta fitxa didaktikoak, irakasleei zein ikasleei zuzenduta.

2021ean, 10 ikastetxetan egin da prestakuntza. Ikasleekin egindako ikastaroetan 660 gaztek parte hartu dute guztira; horietatik, 151 pertsona neska gisa identifikatu dira, 507 mutil gisa eta 2 ez-bitar gisa. 169 prestakuntza-ordu eman dira guztira ikasleekin, 21 taldetara iritsi da, eta horietako gehienetan 4 ordu eman dira talde bakoitzeko. Irakasleekin 4 orduko ikastaroa egin da.

**GIZONEZKO POLITIKARIEKIN EGINDAKO LANA** 2017an, kargu politikoak dituzten gizonen zuzendutako ekimena jarri zen martxan, gizon horiek beren eragin-eremuan berdintasuna sustatzea lortzeko, bereziki, beste gizon batzuek kausa horrekin duten konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzeko. Horretarako, bi gizonezko politikarien talde sortu ziren, bata Eusko Jaurlaritzaren barruan eta bestea udal-mailan. Prestakuntza, gogoeta eta elkartruckerako espazioak ziren, eta politikan lan egiten duten gizonen partaidetza eta inplikazioa indartzea zuten helburu, gizon horiek erreferenteak baitira eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzen baitute.

Ekimenari jarraipena emateko, 2021. urtearen hasieran bigarren fasea hasi zen, kargu politikoak betetzen dituzten gizonen zuzendutako berdintasunerako gida-zirriborro batean oinarrituta. Gida hori osatzeko, 5 lan-saio egin ziren (2 Jaurlaritzako politikariek, 2 tokiko politikariek eta saio bat elkarrekin), eta, guztira, 25 gizon inguruk parte hartu zuten.

Gainera, 2021ean, bi prestakuntza-ildo jarri dira abian, EAEko erakunde publikoetan postu politikoak betetzen dituzten gizon guztientzat irekiak. Alde batetik, hizketaldiak egin dira berdintasun gaietan adituak diren pertsonekin:

- 2021/05/18: Miguel Lorente «El papel de los hombres con cargos públicos en la promoción de la igualdad».
- 2021/11/24: Pilar Kaltzada «Declaraciones, discursos y acciones de los hombres con cargos políticos ante la violencia machista».

Beste alde batetik, «prestakuntza-topaketak» deiturikoak egin dira, hau da, online aldizkako saioak, bereziki gizon politikarientzat diseinatutako prestakuntza-pilula formatuan.

- 2021/06/10: «Los hombres, la igualdad y las políticas de igualdad».
- 2021/10/14: «Identidad masculina, poder, formas de liderazgo y el papel los hombres en la igualdad».

Azpimarratzekoa da arlo horretan egindako lana jardunbide egokitatzeko delako Promundok Save the Children, Oxfam, MenEngage Alliance erakundeekin eta Nazio Batuen Fundazioaren laguntzarekin egindako State of the World's fathers 2021 txostenean.



**PRESTAKUNTZA-IKASTAROEN ZABALKUNDEA:** Gizonak berdintasunari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzera bultzatzeko, unibertsitateko master eta graduondokoen eta IVAPen ikastaro espezifikoaren publikitatearen egin da, Gizonduzen webgunearen eta sare sozialen bidez.

**BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZONEN ARLOAN ESPEZIALIZATUTAKO WEBGUNEA ADMINISTRATZEA:** [www.euskadi.eus/gizonduz](http://www.euskadi.eus/gizonduz) webgunean egitasmoaren inguruko informazio zabala dago, hainbat euskarritan, baita bestelako atalak ere: elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietara loturak, etab. 2021ean guztira 4.030 bisita jaso ditu Gizonduzen hasierako web orriak.

**SARE SOZIALETAN PARTE HARTZEA:** Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTube, Vimeo eta Twitterren dituen profilak administratu dira, eta aldi berean behin eguneratu egin dira. Nabarmentzekoa da Facebooken 2021ean 5.224 jarraitzaile izan genituela (% 59 gizonak), Twitterren 2.117 eta 1.395 ikustaldi YouTube.

**SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-JARDUERETAKO PARTE-HARTZEA:** Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, zenbait komunikabidetan agertu gara, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jardura ugaritan parte hartu dugu. Hauetan, adibidez:

DATA	JARDUERAK
2021-03-16	Hitzaldi bat maskulinitateei eta politika publikoei buruzko mahai-inguruan, Gizarte Politikaren Espainiako Sarearen VIII. Biltzarrean, Bilbon.
2021-04-29	Txileko Familien Fundazioak antolatutako «Hombres e igualdad de género: experiencias y desafíos» izeneko online mahai-ingurua.

DATA	JARDUERAK
2021-10-07	Maskulinitateetan egin beharreko lanari lotutako politika publikoei buruzko mahai-inguruan parte hartzea, Bartzelonako Udalaren Centre de masculinitats Plural zentroaren inaugurazioan.
2021-10-22	Sevillan, gizonen zuzendutako berdintasun-politikei buruzko mahai-inguruan parte hartzea, «Hacia una Agenda Feminista sobre Hombres y Masculinidades» izeneko Europako topaketan.
2021/06/01 2021/12/03	Bi lan-jardunaldi antolatu ziren Europako «Men in Care» proiektuaren esparruan. Bertan aztertu zen zer rol duten enpresek kontziliazio erantzukidearen sustapenean eta zer-nolako inplikazioa duten gizonen zaintzan, eta arlo horretako funtsezko alderdiak eta jardunbide egokiak ezagutzera eman ziren.

**AHOLKULARITZA:** Kontsulta guztiei erantzun zaie, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuei buruz.



Men In Care prestakuntza-tailerra.



## 5.4. Martxoaren 8ko kanpaina

«Nork zaintzen du? Jar dezagun agerian. Egin dezagun dagokiguna» izan zen 2021eko Emakumeen Nazioarteko Eguneko, martxoaren 8ko, kanpainaren leloa, eta haren helburua izan zen zaintza-lanen ikusgarritasuna nabarmentzea, eta zaintza-lanak baloratzea eta gizonen eta emakumeen artean banatzea, baita erakundeen eta gizarte osoaren artean ere.



Martxoaren 8ko kanpainaren aurkezpena.



Martxoaren 8ko kanpainaren kartela.



Kanpainak zaintzarekin lotutako funtsezko hiru alderdi azpimarratu zituen. Alde batetik, zaintza-lanak ezkutatzea. Alderdi hori era grafikoan iradokitzen zen; izan ere, zaintzarekin lotutako elementuak ageri ziren, ondoan pertsonarik agertu gabe. Bestalde, zaintza-lanak baloratu beharra ere azpimarratzen zen, bai ordainduak, bai ordaindu gabeak. Eta, azkenik, erantzukidetasuna azpimarratu nahi izan zen: kanpainan adierazi zen zaintza-lanak emakumeen eta gizonen artean banatu behar zirela, baita erakundeen eta gizarte osoaren artean ere.

Kanpainak otsailaren 24tik martxoaren 9ra iraun zuen eta kartelak, irratiako oharrak, bannerrak eta bideo bat sortu ziren, kanpaina kanpoko euskarrien, komunikabideen eta sare sozialen bidez jendarteratzeko. Gainera, kartelak bidali zitzaizkien erakundeei, ikastetxeei, osasun-zentroei, elkarteei, enpresei, kultura-zentroei, liburutegiei eta abarrei. Kanpaina urte osoan zehar mantendu zen irrati eta sare sozialetan, martxoaren 8aren erreferentziarik gabe.

## 5.5. Azaroaren 25eko kanpaina

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira, Emakunde sentsibilizazio-kanpaina bat sustatu du telebistan, irratieta, prentsan eta sare sozialetan, eta, horren bidez, indarkeriarik sotilena erakutsi nahi izan da, bereziki, adineko emakumeek jasaten dutena.

2021eko kanpainak jarraipena ematen dio 2020an 55 eta 79 urte bitarteko emakumeekin egindako lanari, urte askotan pairatutako indarkeriaren benetako testigantzak bildu baitziren tarte horretan. Kanpainak testigantza horietako batzuk erakusten ditu, eta herritarrei galdetzen die ea gai diren haien atzean ezkututzen den indarkeria ikusteko. «Eta zuk... ikusten duzu? Adi dagoen gizarte batek soilik detektatzen du indarkeria ezkutuen» da kanpainaren leloa, eta, horren

“  
Senarra etxera iristen zen eta beti zegoen zerbait gaizki.  
40 urtez eutsi nion, familiagatik...  
Orain bizitzeko garaia da.

**eta zuk... ikusten al duzu?**  
ADI DAGOEN GIZARTE BATEK BAKARRIK ANTZEMAN DEZAKE INDARKERIARIK EZKUTUENA

Azaroak 25, Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 24h  
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU  
LLAMA, TE AYUDAREMOS

EMAKUNDE  
Euzkadi,  
azpizana, hiru eremua  
EUSKO SAHULARRITZA  
GOBIERNO VASCO  
GOBIERNO DE ESPAÑA  
REINO DE ESPAÑA

Azaroaren 25eko kanpaina.

bitartez, gizarteari eskatzen zaio adi egon dadila eguneroko indarkeria-egoeren aurrean, kasu askotan egoera horiek normalizatuta baitaude.

Kanpaina azaroaren 15etik 30era egin zen telebistan, irratieta, egunkarietan, online hedabideetan eta sare sozialetan. Gainera, kartelak bidali zitzaizkien erakundeei, ikastetxeei, osasun-zentroe, elkartei, enpresei, kultura-zentroe, liburutegiei...



Saria Emakunderen kanpainari: "entzuten baduzu, ikusiko duzu".

Bestalde, Emakundek 2020ko azaroaren 25ean abian jarritako «Entzunez gero, ikusiko duzu» kanpainak Publizitate sozialeko dokumentalen exekuzio onenaren saria jaso zuen 2021ean, baita Publifestival Publizitate Sozialaren Nazioarteko Jaialdiak urtero ematen duen publizitate-kanpaina eraginkorrenaren saria ere. Sari-banaketa Madrilgo Lara Antzokian egin zen, eta Izaskun Landaia Emakundeko zuzendariak jaso zuen saria, indarkeria pairatu duten emakumeen elkarteetako bi ordezkarekin batera: Bizitu elkarte Amaya Gallo eta Goizargiko Inma Mata. Bi-biek ekarpen handia egin zuten spot saritua sortzeko. Kanpainaren helburua izan zen adineko emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan gizartea sentzibilizatzea, bereziki haien egoeraren kalteberatasuna kontuan hartuta, eta emakume askok pairatzen dituzten indarkeria-egoerei adi egoteko deia egitea.



2020ko Emakunde Sariaren banaketa.



## 5.6. Berdintasunaren Emakunde Saria

Emakunde sariaren bidez, jendaurrean nabarmendu eta aitortu nahi da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik gailendu diren pertsona fisiko edo juridikoen -publiko nahiz pribatuen- jarduna, hain zuzen ere, EAEn emakumeen lana eta beren ahalduntzea aitortzeari dagokionez alderdi esanguratsuak hobetzeko ekintza, lan edo proiektuak egin dituzten pertsonak, edo beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen lagundu dutenak edo emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnak.



2021eko Emakunde Saria ematea.

2021ean, 2020ko saria Askabide/Liberación elkarteari eman zitzaion. Sari horren bidez, 35 urte baino gehiagoko ekarpenaren aitorten publikoa egin nahi izan da. Elkarteak gauzatutako esku-hartzearen ezaugarria izan da prostutuzioari dimentsio indibidual batetik heltzea, emakume bakoitzaren bizitza-historia eta -esperientziak errespetatu eta balioesteko, baita dimentsio soziokomunitario batetik heltzea ere, konplexutasun horri guztiari erantzuten saiatzen diren estrategia malguak diseinatuz.

Bestalde, Emakunde Sariaren epaimahaiak 2021eko Emakunde Saria hiru hautagairi ematea erabaki zuen: Pikara Magazine aldizkariari (Eme Komunikazioa Elkarte), Berria egunkariari (Euskal Editorea SL), eta Lucia Martínez Odriozolari, hil ondoren, saria baloratzeko irizpideekin ondoen bat egiten duten hautagaiak direlako.

Horrela, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin konprometitutako komunikazio eta kazetaritzaren alde egindako ekarpenaren aintzatespen publikoa adierazi nahi izan zuen epaimahaiak, ikuspegi feministatik eta genero-ikuspegitik kazetaritza-zereginen oinarritutako praxia sustatuta. Ikusgarritasuna eman nahi zaio, halaber, komunikazioaren arloan genero-ikuspegia txertatzeko premiari, eta horretarako zutabe beharrezkoetako bat da prestakuntza, kazetaritza-fakultateetan bezala, komunikabide espezializatu eta orokorretako eguneroko lanean ere etengabe jasotzen baita.

Azkenik, aintzatespen hau egunero berdintasunarekiko konpromisoa adierazten duten komunikazio-arloko beste profesionali ere nahi die hedatu epaimahaiak, baita ikuspegi feminista eta genero-ikuspegia txertatzen dituen kalitatezko kazetaritza sustatzen lan egiten duten komunikabide guztiei ere.







## 6. BERDINTASUNA ENPRESETAN



Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturan aldaketa gertatu behar da. Soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta haien errealitate anitzak kontuan hartzea. Azterlan ugari agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen pozarik handiena hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste, lanbide-aintzatespenarekin, lanbide-prestakuntzarako eta -sustapenerako aukerekin, lan-bizitza, familiakoa eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab. Emakundek arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak dira enpresetan sentsibilizazio-lana eta berdintasun-planak landu eta abian jartzeko aholkularitza eta laguntza, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzatestea, arlo horretan adituak diren aholkularitza-enpresak homologatzea eta gako diren eragileekin sare eta aliantzak sortzea ere.

## 6.1. Berdintasun-planak: Aholkularitza

Emakundek aholkularitza ematen die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasun-legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta giza baliabideei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

901 eta 902 Errege Dekretuak indarrean jarri ondoren<sup>12</sup>, eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio- eta laguntza-eskaerek gora egin dutela, berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko ez ezik, plan horiek abian jartzeko eta plan horien egokitzapena egin eta Regconen erregistratu ahal izateko ere bai. Hain zuzen ere, enpresa txikien informazio-eskaerek gora egin dute, Errege Dekretuak onartu ondoren,

besteak beste, berdintasun-plan negoziatu bat eduki behar dutelako, soldata-auditoretza barne. Horrez gain, sexuaren ondoriozko eta sexu-jazarpenaren aurkako berariazko protokoloak aplikatzeari lotutako kontsulta kopuruak urtero egin du gora, baita esparru horretako prestakuntza-eskaeren kopuruak ere.

## 6.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak

Berriz ere egin da enpresa eta erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzen deialdia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-diagnostikoak eta -planak prestatzeko laguntza kontratatzeko. Dirulaguntza 46 enpresei eman zaie<sup>13</sup>; guztira 221.329,04 €.

Dirulaguntza eman zaien erakundeen artetik 12 Bizkaikoak dira, 25 Gipuzkoakoak eta 9 Arabakoak. Jarduera-eremuari dagokionez, adierazi behar da 35 erakunde zerbitzuen sektorekoak direla (8 ingeniariaren eta teknologiaren sektorekoak, 4 esku-hartze sozialekoak, 3 prentsa eta argitalpenetakoak, 2 merkaturatze eta erreminten arlokoak eta gainerakoak beste esparru batzuetakoak), eta 11 industria-arlokoak direla (5 produkzio, tresna eta piezen arlokoak, 2 eraikuntzakoak, 2 metalaren eta soldaduraren arlokoak, 1 zurgintza-arlokoa eta 1 makineriaren ekoizpenari lotutakoa). Guztira, zifrei dagokienez, baliteke 1.185 emakumerentzat eta 1.587 gizonentzat izatea onuragarriak erakunde horietako bakoitzean egitea aurreikusitako diagnostikoak eta planak (langileak diruz lagundutako erakundeetako plantillan), eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.

12. Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua moldatzen duena; eta urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua, emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzkoa.

13. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 3. eranskina.



### 6.3. Berdintasunerako lankidetzakerakundeak aitortzea

Gizarte- eta lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, eta entitateek arlo horretan egiten duten lana nabarmentzeko, lankidetzakerakundearen figura sortu eta arautu zen<sup>14</sup>.

24 eskaera jaso dira 2021ean, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzakerakundearen aitortpena eman zaie jarraian adierazitako 20 erakundeei.

AITORTUTAKO ERAKUNDEAK
1. BASQUE TEAM FUNDAZIOA
2. BURU GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONEN ETA SENIDEEN AIARAKO ELKARTEA
3. ARAZI IKT SL
4. PKF ATTEST ITC SL
5. FARAPI KOOPERATIBA ELKARTEA
6. IGUALATORIO MEDICO QUIRURGICO PREVENCIÓN SL
7. BILBOMATICA SA
8. IKERTALDE GRUPO CONSULTOR SA
9. CENFORPRE
10. LINVESTIC SL
11. ASAFES, BURU GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONEN ETA SENIDEEN ARABAKO ELKARTEA
12. APNABI LAN-AUTISMO BIZKAIA EMPLEO ELKARTEA
13. INDRA SOLUCIONES TECNOLOGIAS DE LA INFORMACION SLU
14. SIRIMIRI SERVICIOS SOCIO-CULTURALES SL

14. Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuak arautua.

#### AITORTUTAKO ERAKUNDEAK

15. CENTRO INFORMATICO Y DE GESTION MEATZE SOCIEDAD REGULAR LIMITADA
16. UNIBERTSITATE ZERBITZUETARAKO EUSKAL IKASTETXEA UZEI
17. ASOCIACION DE DIRECTORES/AS DE INSTITUTOS PUBLICOS DE SECUNDARIA
18. CENTRO DE AYUDA ESPECIALIZADA SL
19. ZUREKIN BUS SL
20. FUNDACION ARDATZ (IKA GASTEIZ)

Gaur egun, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzakerakunde gisa aitortutako 129 erakunde daude.



Erakunde laguntzaile berriei aintzatespenak ematea.

## 6.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresei eta erakundeetara emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioaren deialdiari buruz.

Aurten 5 enpresak egin dute eskaera eta 4 enpresa homologatu dira:

AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK
1. FARAPI
2. EREINN
3. MARGUBE
4. NORMAK CONSULTING

Bestalde, homologatutako kontsultoreen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

2021eko abenduaren 31n, Emakundek 36 aholkularitza-enpresa homologatu ditu, enpresei berdintasun-diagnostiko eta -planak egiten laguntzeko.

## 6.5. BAI SAREA, berdintasunerako lankidetzaren erakundearen Sarea

BAI SAREA Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak sustatutako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren erakundeek osatutako sare bat da, 2018ko martxoaren 19an eratu zena formalki, Emakundek eta gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzaren erakunde askok bi urtez lanean jardun ondoren.

Gaur egun, Emakundek eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako 68 erakunde laguntzailek<sup>15</sup> osatzen dute. Erakunde horiek, konpromiso-eredua sinatuz, borondatez konpromisoa hartu dute emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta NBE Emakumeak erakundeak ahalduz egiteari dagokionez ezarritako printzipioak aplikatzeko, betiere EAEko errealitateara egokituta.

BAI Sareak helburu hauek ditu: esperientziak, praktikak, ikaskuntzak, ideiak, metodologiak eta abarrak partekatzea; eta enpresen zein gizartearen errealitatea eraldatzea zein hartarako tresnak sortzea, lan-esparruan genero-arrakalak murrizteko, eta berdintasuna eta justizia soziala erakundearen balio estrategiko gisa bultzatzeko.

Eratu zenetik, zazpi batzar egin dira. 2021eko batzarretan (ekaina eta abendua), komunikazio-planari heldu zaio eta partaidetza eta zaintza jorratzeko komunikazioa azpimarratu da. Halaber, abenduko batzarrean 2021eko emaitzak aurkeztu dira: Ordainsari-berdintasunaren eta eragileen taldearen produktuak aurkeztea, eta aitortpenak ematea hiru jardunbide onenei (Zubietxe, Orona koop. eta Itelazpi). Guztira 20 ekintza egin dira, besteak beste, azaroaren 25eko kanpaina, 21 eguneko erronka, BS gela topaketak, BS cookieak, etab.; eta 15 tresna garatu dira, hala nola 2 infografia, datuak babesteko fitxak eta erregistroak,

15. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 4. eranskina.




praktiken bilduma, planetarako BS neurriak, ezkutuko CVa, 4 podcast, etab.

Batzorde Antolatzaileak izan ezik, zeina ez baita egon aktibo aurrez aurreko topaketarik ez antolatzeko gomendioagatik, Sareko beste bost lantaldeek beren jarduerarekin jarraitu dute: talde eragileak, komunikazio taldeak, ordainsari-berdintasunaren taldeak (birmoldatua), esperientziak trukatzeko taldeak eta eragileen taldeak (sortu berria). Guztira, Emakundek eta 27 erakundek -gaur egun sarea osatzen dutenen % 48k- parte hartu dute lantaldeetan.

## 6.6. Enpresentzako prestakuntza

Lan-arloan eta enpresa-kudeaketan genero-ikuspegia txertatzen aurrera egiteko, Emakundek enpresentzako prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu 2021ean, kudeaketa aurreratua eta lan-osasuna bereziki kontuan hartuta:

- 2021/02/25: «Genero-ikuspegidun lan-osasuneko eta lan-baldintzetan aurrerapenak» online jardunaldia, Lan Ikuskaritzarekin eta Osalanekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan antolatua. Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:
  - Laneko osasunaren eredu berria ezagutaraztea.
  - Lan Ikuskaritzak 2020an genero-ikuspegiarekin egindako jarduketan berri ematea
  - 2020an laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeko Osalanek egindako jarduketan berri ematea.



Jardunaldia: Aurrerapenak lan-osasunean eta lan-baldintzetan genero-ikuspegiarekin.



- 2021/10/22: «Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak (IV)» jardunaldia, Kudeaketa Aurreratuaren XXVII. Europar Astearen esparruan (Euskalitek sustatutako astea). Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:
  - Enpresei berdintasunaren ikuspegian oinarrituta pertsonak nola kudeatu hausnartzen laguntzea.
  - Pertsonak eremuko kudeaketa aurreratuan hiru berdintasun-praktika partekatzea.
- 2021/12/16: «Bidea egiten» jardunaldia. Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:
  - Emakundek enpresekin egin duen kudeaketan berdintasuna sustatzeko ibilbidearen berri ematea, «Elkarrekin bidea egiten» ikus-entzunezko pieza aurkeztuz.



Euskalit jardunaldia.

- Bai Sareak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaileen sareak, egiten duen lana partekatzea, berdintasuna eta enpresak batzen dituzten hiru elkarrizketaren bidez.
  - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaz-erakundeen aitorpena ematea.
- 2021/12/17: Olga Fotinopoulos. «Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako enpresen protokoloen testuingurua eta alderdi praktikoak» izeneko jardunaldia. Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:
    - Sexu-jazarpenen eta sexuan oinarritutako jazarpenen prebentzioa eta horien aurrean jarduteko modua arautzen duen araubide juridikoa ezagutaraztea.



Jazarpena prebenitzeko jardunaldia.



- Lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko jarraibideen berri ematea, Osalanen eskutik
- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean jardutea: lanean genero-indarkeriaren mota horren aurrean jarduteko arazoak eta zailtasun praktikoak
- Emakundek eskaintzen duen Sektore pribatuan berdintasunaren eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ezaren printzipioa defendatzeko zerbitzua ezagutaraztea.

## 6.7. Funtsezkoak diren eragileekiko lankidetzaz-ildoak

Enpresekin, antolaketa- eta ekoizpen-modu berri berdinzaleagoak bultzatzeko bidean aurrera egiteko, ezinbestekoa da gako diren beste eragile batzuekin aliantzak eta sinergiak sortzea, baita horiekin lan egiten duten instituzioekin ere. Ildo horretan, Emakunderen ustez, estrategikoa da elkarlanean bidelagun izatea bai lan-ikuskaritzaren arloan eskumena duen lan-agintaritzaz, bai laneko segurtasunean eta osasunean eskumena duen erakundea, baita EAEko erakundeetan kudeaketa aurreratua ezartzen eta lehiakortasuna, berrikuntza eta garapen jasagarria sustatzen diharduten erakundeak ere. Horrekin guztiarekin, berdintasunezko lan-inguruneak bultzatu nahi dira. Horretarako, honako hitzarmen hauek egin dira:


**LANKIDETZA-HITZARMENA LAN-IKUSKARITZAREKIN:** Emakumeen eta gizonen artean berdintasun eraginkorra sustatzeko eta EAEko enpresetan sexuan oinarritutako bereizkeria-egoerak prebenitzeko edo zuzentzeko 2016an sinatutako hitzarmenaren esparruan, berdintasun-planen erregistroari buruzko informazioa trukatzeko eta kontsultak bideratzeko hainbat jarduketa garatzen jarraitu da, Lan Ikuskaritzaren eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen arteko hitzarmenaren

esparruan. Era berean, jardunaldi partekatu bat diseinatu da Osalanekin batera, genero-ikuspegidun lan-osasuneko eta lan-baldintzetan aurrerapenak izan diren aurrerapenei buruz.

**LANKIDETZA-HITZARMENA OSALANEKIN:** 2015ean laneko segurtasun, higiene, ingurumen eta osasunaren arloan sinatutako hitzarmenaren esparruan, genero-ikuspegitik hainbat jarduketa egin dira informazioa koordinatzeko eta trukatzeko, prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzeko, aholkularitza eskaintzeko, dibulgazioa bultzatzeko eta kontsultak bideratzeko. Era berean, Lan Ikuskaritzarekin batera ere antolatu da jardunaldia, genero-ikuspegidun lan-osasuneko eta lan-baldintzetan aurrerapenak izan diren aurrerapenei buruz. Era espezifikoan, elkarlanean aritu gara laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arloko tresnak sortzeko, ikuspegi prebentibo eta errektiboa oinarri hartuta, baita tresna horien gaineko dibulgazio- eta prestakuntza-ekintzak antolatzeko ere.

**LANKIDETZA HITZARMENA EUSKALITEKIN:** 2017an sinatutako hitzarmenaren esparruan, hainbat jarduketa egin dira hitzarmena betetzeko. Besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira: <https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea> kudeaketako berdintasuneko jardunbide egokien bilatzailea elikatzeko enpresa-praktikak identifikatzea, eta jardunbide egoki horietako zenbait aurkeztea urriaren 22an antolatutako jardunaldi batean.





## 7. BERDINTASUNA PUBLIZITATEAN ETA KOMUNIKAZIOAN



Komunikabideek eta publizitate-agentziek, eragile sozializatzaile diren aldetik, funtsezko eragina dute errealitatearen pertzepzioan. Irudi eta mezu jakin batzuk errepikatzeak balio, portaera-eredu eta bizimodu jakin batzuen onarpen akritikoa sustatzen du neurri handi batean. Publizitate eta komunikazio ez-sexistaren ekoizpenean aurrera egiteko, Emakunderen lana Begira Batzordearen eta atxikitako erakundeen sarearen bidez egituratzen da. Lan-ildo nagusiak honako hauek dira: azterlanak eta ohartarazpenak egitea; materialak, gidak eta tresnak diseinatzea; sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzea; kexak kudeatzea.

## 7.1. Begira / Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea

Begira 1998. urtean sortu zen Emakunderi atxikitako batzorde gisa<sup>16</sup>. Idazkari Nagusia buru dela, honako hauek osatzen dute batzordea: Eusko Jaurlaritzako Publizitate Institutuzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko, Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailetako, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakunderen Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkartereko ordezkariak. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonak osatzen dute batzordea.

Aholku-eta topaketa-batzordea da, eta haren zeregina da aholkularitza eskaintzea eta azterketak egitea, publizitatearen eta komunikazioaren eremuan sexuan oinarritutako bereizkeria mota oro desagerrarazteko. Halaber, komunikabide publikoek eta publizitate-agentziek emandako edukietan kode etikoak aplikatzea sustatzen du, eta akordioak bultzatzen ditu komunikabide pribatuekin eta agentziekin.

2014-2015ean, publizitate-agentziek, komunikabideek eta genero-erloko espezialistek lankidetzaren prozesu bat garatu genuen, Emakunderi atxikitako Begira/Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeak sustatua, EAEn publizitate eta komunikazio ez-sexistarako Autoerregulaziorako Kode Deontologikoa lantzeko eta hari atxikitzeko. Gainera, kode hori eragingarri bihurtzen duten hainbat dekalogo ere egin dira. Dokumentu horietan, alderdi eta konpromiso etiko batzuk jasotzen dira, publizitatearen eta komunikazioaren jardun profesionalean erabilera sexistak antzemateko eta desagerrarazteko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko. 2016an, kodea finkatzeko eta ezartzeko prozesu bat hasi zen, eta, testuinguru horretan, **Autoerregulaziorako Kode Deontologikoari atxikitako erakundeen Begira Sarea** sortu genuen.

Hona hemen sare horren eginkizun nagusiak: zailtasunak diagnostikatzea eta horiek elkarrekin konpondu ahal izatea erraztea, lan-tresna praktikoen bidez. Esparru horretan, hainbat material sortu ditugu, hala nola hauteskunde-prozesuen informazio-tratamendurako gida, dekalogoei lotutako check-listak edo hurrei zuzendutako publizitatearen tratamendu ez-sexistarako gomendioak.



Begira Batzordea.

16. Ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuak arautua.



2021ean, Begira Batzordea aurrez aurre bildu zen apirilaren 27an, eta honako gai hauek jorratu zituen:

- Batzordearen eta Begira sarearen 2021eko jarduera memoriak aurkeztu dira, eta jakinarazi da Legebiltzarrerara bidaliko direla, halaxe aurreikusten baita batzordea arautzen duen dekretuan.
- 2021erako aurreikusitako jarduera garrantzitsuak aurkeztu dira:
  - EAEn publizitate eta komunikazio ez-sexista lortzeko Autoerregulaziorako Kode Deontologikoari atxikitako erakundearen sarearen esparruan, atxikipenari buruzko hausnarketa-prozesu bat hasi nahi da, parte-hartzea eta konpromisoak hobetzeko.
  - Kode Deontologikoa eta Dekalogoak berrikusteko prozesu bat hasi nahi da, horiek eguneratu eta hobetzeko.
  - EAEko hedabide digitalen monitorizazioari buruzko proiektuaren bigarren faseari ekin nahi zaio.
  - Komunikazioaren eta publizitatearen arloko profesionalentzako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzetan sakontzen jarraitzea.
- 2020an publizitateari eta komunikazioari buruz aurkeztutako kexen berri eman da, eta datuak aztertu dira. Era berean, urte hasieratik irekitako espedienteak berrikusi dira, egin daitezkeen ekarpenak jasotzeko.

## 7.2. Kexen kudeaketa

Begirak herritarrek edota erakundeek egindako kexak jasoko ditu eta prozedura zuzentzaileak proposatuko ditu edo, behar izanez gero, dagokien organoetara bideratu, Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak jasotzen duenaren arabera zehapen-prozedurak erabakitzeke.

2021ean, 20 kexa-espeditente bideratu dira:

ESPEDIENTE KOP.	2021
Gomendioak	8
Emakumeen Institutuko Irudiaren Behatokira bideratutako eskariak	10
Fiskaltzara bideratutako eskariak	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>20</b>

Hauek dira datuak, kexen tipologiaren arabera:

ESPEDIENTE KOP.	2021
Publizitatea	5
Komunikabideak	15
<b>GUZTIRA</b>	<b>20</b>

Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta -rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte, argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputza gauza bihurtzen duten iragarkien gainean. Komunikazioaren esparruan, batez ere emakumeen aurkako indarkeria banalizatzen duten eta emakumeen irudi estereotipatua helarazten duten kexak dira.



### 7.3. Aholkularitza, sentsibilizazioa, prestakuntza eta material lagungarriak

Begiraren eginkizun nagusien artean daude komunikazio eta publizitate ez-sexistaren arloan aholkatzea, prestatzea eta sentsibilizatzea, baita komunikazioan eta publizitatean sexismoari buruzko irizpideak eta alternatibak ezartzea ere.

**AHOLKULARITZA:** Begirak hainbat erakunde, instituzio, unibertsitate edo ikertzaileen kontsultak eta aholku-eskaerak jasotzen ditu, baita herritarren aldetik ere. 2021ean, hainbat kontsultari erantzun zaie; eskari gehienek helburua izan da batzordearen zeregina ezagutzea edo genero-ikuspegiaren oinarritutako kazetaritzari edo publizitate ez-sexistari buruzko aholkularitza espezializatua eskatzea.

**MATERIAL LAGUNGARRIAK:** Emakundek, Begira Sarearen esparruan, kodea betetzea errazteko eta agentzia eta hedabideetako profesionalen eguneroko lanean genero-ikuspegia txertatzeko hainbat tresna praktiko (eskuliburuak, gidak, gomendioak, etab.) prestatzen ditu beste batzuekin elkarlanean.

Hain zuzen ere, 2021ean bi gida egin eta argitaratu ditu:


- «Nola komunikatu emakumeen aurkako sexu-indarkeria kasuetan» gida. Gidaliburu horren helburua da lagungarria izatea komunikabideek aintzat har dezaten zer-nolako eragina duten sexu-indarkeriari buruzko informazio eta iritziek emakumeengan nahiz jendarte osoarengan. Era berean, biktima izan diren emakumeek, haien elkarteek eta mugimendu feministak gai honen inguruan dituzten esperientziak, hausnarketak eta ekarpenak jaso nahi dira, lanbideari dagokion egitekoa modu arduratsuan betetzeko eta, horrela, sexu-indarkeria ezkutatzeko, normalizatzen edo justifikatzen duten diskurtsoak deslegitimatzen.

- «Nola hobetu publizitate-sormena genero-ikuspegiarekin» gida. Gidaliburu horren helburua da publizitateko profesionali jarraibide praktiko batzuk ematea publizitate-sormena eta haren prozesuak genero-ikuspegiaren bidez nola landu jakiteko. Ohiko euskarri nagusiekin (irratia, telebista, prentsa estatikoa, digitala...) lan egiteko sortu da, eta agentzia guztietara bideratuta dago, edozein direla ere agentzia horren dimentsioa, negozio-gaitasuna, bezeroen izaera edo inpaktua. Bestalde, sormen tradizionalaren alternatibak proposatzen ditu, eta genero-ikuspegia txertatzen eta egungo gizartearen benetako aniztasuna islatzen duten adibideak aurkezten ditu.

**SENSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA:** Publizitate eta komunikazio ez-sexistaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzeko, eta hausnarketarako espazio komunak eskaintzeko zein sektoreko



Gida: "Nola komunikatu emakumeen aurkako sexu-indarkeria kasuetan".



Gida: "Nola hobetu publizitate-sormena genero-ikuspegiarekin?".



profesionalen lana artikulatu eta erraztuko duten lan-tresnak eskaintzeko, Emakundek bi jardunaldi antolatu ditu 2021ean, lehen aipatutako bi lan-gidak aurkezteko:

- 2021/06/30: Begira Sarearen «Berdintasunezko komunikaziorako baliabideak eta esperientziak» jardunaldian Norma Vázquez Garcíak «Nola komunikatu emakumeen aurkako sexu-indarkeria kasuetan» gida aurkeztu zuen.
- 2021/11/18: Begira Sarearen «Nola hobetu publizitate-sormena genero-ikuspegiarekin» jardunaldian, Pablo Vidal Canaclochak izen bereko gida aurkeztu zuen.

## 7.4. Publizitateari eta komunikazioari buruzko azterlanak, ikerketak eta monitorizazioak

Begiraren eginkizun nagusien artean daude komunikazioa eta publizitatea aztertzea eta jarraipena egitea. Ildo horretan, lan handia egiten ari da hedabideak zein publizitate-agentziak genero-ikuspegian oinarrituta monitorizatzeko.

Zehazki, EAeko prentsa digitalean generoa monitorizatzeko proiektuaren 2. faseari ekin zaio 2021ean. 1. fasean aplikazio bat diseinatu zen beta bertsioan, baliabide digitalen informazioetan emakumeen eta gizonen presentzia kuantitatiboki aztertzeko, eta interfaze bat martxan jarri zen, baita aplikazioa zerbitzari birtual batean hedatu ere (2020).

2021ean aplikazio hori hobetzen jarraitu da, helburu hauekin: Aurretik UPV/EHUK egindako monitorizazioetan erabilitako adierazle berriak sartzea, serie historikoak egin ahal izateko; datuen ustiapenetan, laginetan eta iragazkietan doikuntzarik ezak araztea.





## 8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA



Emakume izate hutsagatik emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria egungo gizarte-ereduan nagusi diren genero-desberdintasunen ondorioa da. Desberdintasunetik eratorritako arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei eta haren adierazpenik larrienari -emakumeen aurkako indarkeriari- aurre egiteko, Emakundek gogor dihardu lanean berdintasunaren aldeko sentsibilizazioan eta prestakuntzan bereziki, hori baita prebentziorako funtsezko tresna.

Indarkeria matxista pairatzen ari diren eta/edo gairitu duten emakumeei eta neskatoei laguntzea da Emakunderen lanaren beste lehentasunetako bat. Horretarako, genero-indarkeriaren biktimak detektatzeko, artatzeko eta egoera gairitzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak emateaz arduratzen diren erakundeen jarduera bultzatzen eta koordinatzen du Emakundek, baita haren jarraipena egiten ere.



Beldur Barik programa.

## 8.1. Beldur Barik programa

2009. urtean hasi zenez geroztik, Beldur Barik programa finkatuz joan da eta, 2013. urtean, Emakundek bere gain hartu zuen programaren kudeaketa. Beldur Barik programa urtero egiten da, gazteen artean hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sortzeko, indarkeria sexistaren aurpegi guztiak identifikatzen jakiteko; ondoren, banakako eta taldekako jarrera eta jokabideak eraldatu eta eraiki nahi dira gazteekin, gertatzen diren desberdintasun- eta indarkeria-egoerak garaitu ahal izateko.

Erakundearteko programa bat denez, hura kudeatze aldera, jarraipena eman zaio foru-aldundiekin egindako lankidetzak-hitzarmenari eta EUDELekin abiatutako koordinazioari. Era berean, koordinazio-bilerak egin dira Hezkuntza Sailarekin (Berritzegune Nagusiko hezkidetzak arduraduna), Gazteria Zuzendaritzarekin (Gazteriaren Euskal Behatokia eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua), UPV/EHUrekin eta EITBrekin.

2021ean, Talde Eragilea, programaren koordinazio-gunea, foru-aldundietako, Berdinsareko eta Emakundeko berdintasun-teknikariek osatu dute, eta 7 koordinazio-bilera egin dira.

Gainera, 2021ean, Emakundek Beldur Barik programak gazteen artean izan duen Inpaktuaren Ebaluazioa (2010-2020) egin du, urteetan programan parte hartu duten gazteen ahotsa biltzeko eta, gazteen ikuspegitik, etorkizuneko hobekuntzak eta ildo estrategikoak identifikatzeko.

Beldur Barik programaren barruan, hainbat jarduera programatzen dira; horietan helburua da gazteen inplikazio eta parte-hartze aktiboa, besteak beste Beldur Barik lehiaketa eta amaierako Topaketa, programa integral honen jarduera eratzaile gisa.



**BELDUR BARIK LEHIAKETA:** Beldur Barik lehiaketaren helburua da, gaur egun emakumeek nozitzen duten desberdintasun-egoerari aurre egiteko, mutikoek eta neskatilek hartzen dituzten jarrerak eta jokabideak islatzen dituzten adierazpen artistiko indibidual edo kolektiboak aitortzea, baloratzea eta bultzatzea; adierazpen horietan ikusten baita, hain zuzen, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, ardura partekatuan eta emakumeen aurkako indarkeriarekiko arbuio irmoan oinarritzen direla aipatutako jarrerak eta jokabideak. Pandemiak markatu du Beldur Barik lehiaketaren 2021eko edizioa, eta zenbait lan-dinamika berregituratu dira. Sare sozialen bidezko komunikazioa indartu da eta hobekuntza orokorrak eta erabilerraztasun-hobekuntzak sartu dira web-orrian. 71 udalerrri, kuadrilla eta mankomunitatetatik aurkeztutako lanek parte hartu dute, eta 409 lan aurkeztu dira. Guztira 2.487 gaztek hartu dute parte: neska gisa identifikatu diren 1.440 pertsona (% 57,9), mutil gisa identifikatu diren 832 pertsona (% 33,4) eta ez-bitar gisa identifikatu diren 224 pertsona (% 9).



Beldur Barik lehiaketa.

**AZKEN TOPAKETA:** Aurten, 2021ean, COVID-19-aren pandemiak eraginda, topaketa egin zen aste hartan ezarri ziren segurtasun-neurriak kontuan hartuta, Topaketa online egin zen streaming bidez Aguraingo Harresi Aretotik, eta 100 pertsona inguruk jarraitu zuten online. Bestalde, 12 udalerrik tokiko Topaketak egin zituzten: Aiaraldea, Basauri, Deba, Ermua, Lasarte-Oria, Urola Garaia, Hernani, Zalla, Irun, Donostia, Ondarroa eta Abanto Zierbena.

**JAJETAKO KANPAINA:** Beldur Barik Uda 2021 kanpaina espezifikoia egin zen, udan eraso sexistak prebenitzeko. Kanpaina horren bidez, toki-erakunde guztiei bidali zitzaizkien kartelak eta Eraso Sexisten Aurkako Gida eguneratua, beren udalerrietan zabal zitzaten.



Beldur Barik jaietako kanpaina.

## 8.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sentsibilizatzen eta prebenitzen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eta esku-hartze sozialeko funtsezko mekanismoa da.

Hori guztia dela eta, Emakundek, 2021. urtean, jarraitu du laguntza ekonomikoa ematen emakumeen aurkako indarkeria jarreraren inguruan sentsibilizatzeko edo horrelakoak prebenitzeko ekintzak martxan dituzten erakundeei, baita indarkeria hori prebenitzeko oinarri gisa berdintasunezko jarrerak sortzeko estrategiak dituztenei ere.

Deialdira bideratutako baliabide ekonomikoaren zenbatekoa 300.000 eurokoa da. 100 eskaera aurkeztu ziren, eta horietako 52 diruz lagundu dira<sup>17</sup>.

## 8.3. Lankidetzaren sozialerako ildoak eta proiektuak

**VOLAR DOKUMENTALA:** Volar film dokumentala Emakundek ekoitzi zuen, eta Bertha Gaztelumendik zuzendu; iraganean genero-indarkeria pairatu duten bederatzi emakume dira protagonista, eta esperientziak eta bizi-ibilbidea lehen pertsonan kontatzen dute. VOLAR dokumentala egin eta proiektatzearen ondorioz emakume biktimen eta bizirik atera diren emakumeen elkarten arteko dinamikak baliatuz, Emakunderen

erreparazioko proiektuaren barruan, emakume biktimen/bizirik atera diren emakumeen elkarteekin harreman estua izan dugu.

2021. urte osoan, Emakundek filma bidaltzeko 87 eskaerari erantzun die, prestakuntza- edo sentsibilizazio-jardueretan erabiltze aldera, batez ere azaroaren 25eko ospakizunaren inguruan. 9 bidalketa egin dira atzerrira: Mexikora, Guatemalara eta Txilera. Proiektio horietako zenbaitetan protagonistek parte hartu dute, erakunde antolatzaileek hala eskatuta. Zehazki, 17 udalerrik eskatu dute protagonistek beren jardueretan parte har zezaten.

**EMAKUME MENTOREAK:** Lankidetzaren BIZITUREkin, emakumeen aurkako indarkeria matxistatik bizirik atera diren pertsonak osatzen duten elkartearekin, Emakundek aholkularitza sozialerako «Emakume mentoreak» proiektua finantzatu eta abian jartzeko emandako laguntzaren bitartez.

**PRESTAKUNTZA IJITO-IKUSPEGIAREKIN:** Lankidetzaren proiektua AMUGEREkin (Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte), ijitoen ikuspegiaren oinarrituta genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko sistemako profesionalentzako prestakuntza-proiektu bat finantzatu eta bultzatzeko, genero-indarkeriaren biktimentzako oinarritzko zerbitzuei dagokienez NBEk ezarritako kalitate estandarrak egoki zabaltze aldera.

**DESGAITASUNEN BAT DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZEA:** 2019. urtearen amaieran, Emakunde WE DECIDE programan parte hartzen hasi zen, desgaitasuna duten emakumeen eta gazteen eskubideei buruzko ekimen globalean. Ekimen horrek Leave No One Behind-kontzeptuan jartzen du arreta, inor atzean ez uzteko eta desgaitasuna duten emakumeen eta gazteen eskubide-berdintasuna eta indarkeriarik gabeko bizitza lortzeko. Programa horretan parte hartuz (UNFPAK gidatuta), Emakundek konpromisoa hartu du desgaitasuna duten eta indarkeriaren biktima diren emakumeen ikusgarritasuna bultzatzeko eta

17. Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu 5. eranskina.



horien ahalduntze-prozesuan eragina izango duten jarduerak abiatzeko. 2021ean, EDEKArekiko lankidetzari esker, amaitutzat jo da desgaitasuna duten eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei zuzendutako gida baten edukia. Gida hori desgaitasunen bat duten emakumeek beraiek eta Edekan parte hartzen duten erakundeetan parte hartzen duten profesionalak egin dute, Edekaren barruan emakumeen batzorde bat bultzatzeko, ahalduntze kolektiboko lan-guneetan buru izango dena. Halaber, baimen aske eta informatuari eta erabaki autonomoei dagokien prozesuari buruzko gida bat landu da, indarkeria matxistaren biktimak artatzen dituzten profesionaleri zuzenduta.

## 8.4. JABETUZ programa

2015. urtean, Emakundek «JABETUZ» programa diseinatu eta abian jarri zuen; emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionalentzako online emandako lehen oinarrizko prestakuntza-ikastaroa da.

Programa horren bidez, bateratu egin nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko dagoen sistemako profesionalen ikuspegia. Arreta hori ematen den eremuetako erakundeetan dagoen prestakuntza-eskariari ere erantzun nahi zaio.

Kontuan hartu behar den beste alderdi bat da programak, batez ere ikasleen foroetako parte-hartzearen bidez, biktima horiei arreta emateko lan egiten duten profesionalen sarea sustatzen duela eta erakundearteko koordinaziorako bide ematen duela; horrela, biktima horien arreta hobetzen laguntzen du.

**JABETUZEN OINARRIZKO IKASTAROA:** Online oinarrizko prestakuntza-ikastaroak 85 orduko iraupena du eta ikastaroaren helburu nagusia Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko

Erakundearteko II. Akordioaren printzipio orokorretako bat indartzera bideratuta dago; printzipio hori emakumeen ahalduntzea da.

2021. urtean, oinarrizko Jabetuzen bi ikastaro eman dira: 13. edizioa otsailaren 15ean hasi zen eta 14. edizioa irailaren 13an. 182 pertsonak hartu dute parte; 16 gizonak izan dira, eta gainerako 166ak, berriz, emakumeak, biktima horiei arreta emateko erakundearteko esku-hartze eremu guztietakoak, hala nola sistema judiziala, soziala, hezkuntzako, sanitarioa eta segurtasunekoak.

**JABETUZEN IKASTARO AURRERATUA:** Oinarrizko ikastaroaz harago, Erakundearteko II. Akordioaren esparruan, hura osatzen duten erakundeek giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidetik eratorritako betebeharreran aurrera egiteko interesa agertu zuten, baita haurrak babesteko arauditik eta berdintasun-politika publikoetatik eratorritako betebeharreri dagokienez ere. Hain zuzen ere, gai batzuetan gehiago sakontzeko beharra hauteman zen, hauetan esaterako: «Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen seme-alabak» eta «Desgaitasuna duten emakumeak».

Horrela, 2016an ikastaro aurreratua jarri zen abian, eta, orduz geroztik, pixkanaka eduki berriak txertatuz eta/edo horietan sakonduz joan da, 55 orduko iraupena izateraino.

2021ean «Jabetuz» ikastaro aurreratuaren seigarren edizioa egin da, apirilaren 19an hasita. 109 parte-hartzaile izan dira; 92 emakume eta 17 gizon.

Gainera, aurten desgaitasunari buruzko aparteko ikastaro bat bultzatu da, 30 ordukoa, aurretik gai guztiak egin ez dituzten pertsonentzat. Ikastaro horretan, zeina irailaren 20an hasi baitzen, 72 pertsonak parte hartu dute; horietatik 66 emakumeak izan dira eta 6 gizonak.



Azkenik, indarkeria matxistaren biktima diren adineko emakumeei buruzko ikastaro berri bat bultzatu da, 20 ordukoa, urriaren 18an hasi zena. 100 pertsonak parte hartu zuten; horietatik 84 emakumeak eta 16 gizonak.

**JABETUZ JARDUNALDIA:** Adineko emakumeen errealitatea ezagutarazte aldera, eta adineko emakumeen aurkako indarkeria-egoeren prebentzioan, sentsibilizazioan eta esku-hartzean diharduten profesionalentzako erronkaren berri emate aldera, Emakunde jardunaldi monografiko ireki bat antolatu zuen:

- 2021/11/23: «Adineko emakumeak, boteretsuak indarkeriaren aurrean» jardunaldia, aurrez aurre eta online. Jardunaldian honako hitzaldi hauek aurkeztu ziren: «Viejas, sí», Anna Freixas Farre; «La violencia de género contra las mujeres mayores», Mónica Ramos Toro; «Intervención en violencias de género ejercidas contra las mujeres mayores», Jesús Goyenechea Vidal; «Adineko emakumeen parte-hartze soziala EMAKUMEEN ETXEETAN», Mari Luz Esteban Galarza e Irantzu Fernandez Rodriguez. Adineko emakumeen aurkako indarkeriaren sentsibilizazioari eta prebentzioari buruz EAEn egindako esperientzien artean, Onintze Amezaga Bilbao Gurutze Gorriko Sare Morea proiektuaren koordinatzaileak eta AMUGE elkarteko Mari Mar Clavería Jiménezek, «Amari Amama» proiektuaren arduradunak, hartu zuten parte.

## 8.5. Txostenak, estatistikak eta ebaluazioak

Urtero bezala, 2021ean honako txosten hauek egin dira emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruz.

- «Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean emandako erantzuna. EAE, 2020», indarkeriaren biktima diren emakumeen arretari buruzko datuak jaso eta aztertzen dituena.
- «Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko datuak eta analisia. EAE, 2020», emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio estatistikoa jasotzen eta aztertzen duena, batez ere Segurtasun Sailak emandakoa. Halaber, hilero argitaratzen dira datuak Emakunderen webgunean.
- Gainera, 2021ean, COVID-19ak EAEko emakumeen eta haien seme-alaben aurkako indarkerian duen eraginari buruzko txostena egin da.

## 8.6. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzordea eratzeko erabakia hartu zen bertan. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzordearen eginkizunak: Akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakundearteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jarduera-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeke proposamenak egitea.



Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, kasu hauetan profesionalek erabili behar dituzten jarraibide eta irizpideak ezarri dira, bai profesional bakoitzak bere esparruan egin behar duen lanerako, bai erakundeen arteko harremanetarako.

Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (Osasuna, Segurtasuna, Lana eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Politika, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza eta Hezkuntza Saila), EAEko hiru aldundiak, EUDEL, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.



Hogei urte, Emakume Biktimen Arreta Hobetzeko Erakunde arteko Akordioa sinatu zenetik.

2021eko azaroaren 17an Jarraipen Batzordearen ohiko bilera egin zen, lehendakaria bertan zela, Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren egoitzan. Bileran horretan, Emakundeko zuzendari eta Batzordeko presidentek JABETUZ 2021 prestakuntza-programaren berri eman zuten, baita Erakundeak ekitaldi horretan sustatutako beste proiektu batzuen berri ere. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta hobea emateko Erakundearteko III. Akordioa diseinatzeko plangintzaren berri eman zuten. Azkenik, Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei arreta hobea emateko Erakundearteko I. Akordioa onartu zenetik izandako 20 urteko ibilbideari buruz Emakundek egin duen dokumentua aurkeztu zuten.

Batzordeak etengabeko laguntza-talde teknikoa du, baita beste lantalde batzuk ere, aldi baterako eratuak, Batzordeak edo Erakundearteko Talde Teknikoak berak hautemandako beharren arabera gaiak aztertzeko. Gaur egun, Informazio Sistemaren Taldea da martxan dagoen lantalde tematikoa.

### Erakundearteko Talde Teknikoa

Emakundek Erakundearteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta dinamizatu du, eta Erakundearteko Talde Teknikoak hiru lan-saio egin ditu 2021ean:

- Lehen lan-saioa 2021eko martxoaren 16an egin zen, eta bertan aurkeztu zen 2019ko Ebaluazio eta Jarraipen Txosten Orokorren itzultzea. Halaber, honako proiektu hauen berri ere eman zen: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen Legearen egoera; Erakundearteko III. Akordioa egiteko aurreikusitako kontratazioak, lege berria onartzeko zain; eta genero-indarkeriaren ondoriozko babesgabetasun-egoera baloratzeko tresna.



- Bigarren saioa, apirilaren 27an, 2021ean egin beharreko lanak identifikatu ziren, eta III. Akordioaren gutxieneko egitura lantzen joan behar zela adierazi zen, zeina ez baita behin betikoa izango Berdintasunerako lege berria onartu arte.
- Azken saioan, azaroaren 30ekoan, Emakundek Erakundearteko III. Akordioa egiteko proiekturako egindako kontratazioaren berri eman zion Erakundearteko Talde Teknikoari, eta 2022rako aurreikusitako lan-planaren faseen, ekintzen eta bileren berri eman zen.

### Informazio Sistemen Taldea

2021eko lehen hilabeteetan, datuak biltzeko aplikazio berria eguneratzeko prozesua amaitu da, eta, horretarako, Informazio Sistemen Taldea hiru aldiz bildu da: otsailaren 2an, martxoaren 2an eta martxoaren 30ean.

Aldi berean, lantalde bat sortu da, zeinak lan handia egin baitu aplikazio informatikoa hobetzeko. Egiaztatu da aplikazio berria arinagoa dela eta izugarri errazten duela bai inplikaturako agente guztiek datuak iraultzea, bai ondoren bildutako informazioa ustiatu eta aztertze bidea.

Halaber, Informazio Sistemen Taldeak 2021eko azaroaren 11n egindako osoko bilkuran, «Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak eta analisia. EAE, 2020» txostena aurkeztu da. Era berean, indarkeriaren biktima diren emakumeen eta adingabeen arretari buruzko datu-bilketari buruzko azterketa-txostena aurkeztu da: «Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean emandako erantzuna. EAE, 2020».

### Sailarteko Talde Teknikoa

Gainera, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Sailarteko Talde Teknikoak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Estatu Itunera, Istanbulgo Hitzarmenera eta Euskadi Basque Country Agendara egokitzeko lan bat egin zuen 2019an. Lan horren ondorioz, egoerari buruzko txosten bat eman zen, eta dokumentu operatibo bat hartu zen horren barnean, 4 baliabide juridiko horien ezarpen-mailari jarraipena egite aldera. 2020. eta 2021. urteetan, taldeak telematikoki lan egiten jarraitu du pandemia dela-eta; gainera, dokumentu operatiboaren sei hilean behingo eguneratzeak (2020ko ekaina eta 2021eko ekaina) eta urteko eguneratzeak egin dira (2020ko abendua eta 2021eko abendua), aipaturako baliabide juridikoak batera ezartzeko.

## 8.7. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan jarduteko tokiko protokoloak

Emakundek koordinazio-lanak egiten ditu emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduketa-protokoloak homogeneousatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, erakundeak protokoloei buruzko txostenak egiten ditu, eta aholkularitza eskaintzen du, toki-administrazioek erreferentzia-esparru bat izan dezaten, hala eskatzen badute.



## 8.8. Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak

2020an, egoeraren diagnostikoa egin zen, baita esku hartzeko proposamen bat elkarlanean diseinatu ere. Proposamen horren helburua adineko emakumeen aurkako indarkeria matxistak prebenitzea da, betiere EAEko emakumeen etxeekin elkarlanean.

Horretarako, lantalde bat sortu zen emakumeen etxea duten udalerrietako berdintasun-teknikariekin eta horien erreferente diren beste profesional batzuekin. Emakumeen etxeek metatutako ezagutza izan da lan horren oinarria, baita hainbat udalerritan gauzatu diren beste proiektu batzuetan -hala nola Emakumeen Azterna proiektuan- lortutako esperientzia ere, etorkizunari begira, elkarrekin esku hartzeko proposamen bat diseinatzeko.



“Adineko emakumeekin lan egiteko giltzak” argitalpenaren aurkezpena.

2021ean, «Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak. EAE-Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen Etxeekin egindako proiektua» argitalpenean jaso da diagnostiko-lan hori guztia. Azaroaren 23an aurkeztu zen jendaurrean, Euskalduna Jauregian, Emakundek antolatutako «Adineko emakumeak, emakume boteretsuak indarkeriaren aurrean» jardunaldi monografikoaren esparruan.

## 8.9. Emakumeen genitalen mutilazioa

2013an hasi den eta harrezkeroztik lantzen jarraitu den beste lan-prozesu baten langai eta aztergai izan da emakumeen genitalen mutilazioa (EGM), emakumeen aurkako indarkeria mota bat baita.

2014. urtean EAEn egindako emakumeen genitalen mutilazioari buruzko diagnostikoaren ostean, 2015ean etorkinekin lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeetako eta EAEko Administrazio Publikoko langileei bideratutako prestakuntza abiarazi zen. Horretarako, 2 lantalde jarri ziren martxan, EGMri aurrea hartzeko arlo sanitarioko eta hezkuntza-arloko gomendioak prestatu ahal izateko. Talde horietan aldi berean lan egin dute Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako profesionalek osatutako talde sanitarioak eta hezkuntza-taldeak, alde batetik, eta Berritzegune Nagusiko zein Hezkuntzako Ikuskatzaitzako profesionalek osatutakoak bestetik. Emakundek koordinatzen ditu bi taldeok.

2021ean ere Emakundek Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailekin Emakumeen Genitalen Mutilazioari buruz duten lankidetzaren esparruan hartutako konpromisoen jarraipena egin da. Gainera, seigarren urtez jarraian, Emakundek bat egin zuen Emakumeen Genitalen Mutilazioaren aurkako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak «indartzeko» NBek egindako eskaerarekin, ekintza horren aurkako Nazioarteko Egunaren harira.



## 8.10. Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketa

Gizakien salerosketari heltzeari dagokionez, Askabide erakundeari emandako dirulaguntza izendun bat izapidetu eta kudeatu da, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimak diren emakumeei eta horien seme-alabei arreta integrala emateko baliabidea kudeatzeko eta biktima horiei arreta anbulatorioa emateko. Gainera, Congregación Oblatas erakundearentzako dirulaguntza izenduna izapidetu eta kudeatu da, «Ireki Leihoak» proiektua garatzeko; proiektu horren helburua da prostituzioaren errealitateari sistematikoki behatzea, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima izan daitezkeen emakumeak detektatzeko, identifikatzeko eta artatzeko.

2021eko ekitaldian, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima diren emakumeentzako eta horien seme-alabentzako bizitegi-baliabidearen zuzeneko kudeaketari jarraipena eman zaio. Emakundek gaitu zuen etxebizitza hori 2019an, eta 6 lagunentzako edukiera du. Ertzaintzak berriaz horretarako emandako txosten batean proposatutako segurtasun-neurriak biltzen ditu.

Halaber, Emakundek bultzatu eta koordinatzen duen Sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketari buruzko mahaiarekiko koordinazioari eutsi zaio. Bertan parte hartzen dute, Emakundez gain, Ertzaintzaren Zuzendaritzak eta Segurtasun Saileko Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak, Familia eta Haurren Zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Justizia Zuzendaritzak, Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltza Nagusiak, hiru foru-aldundietako adingabeen zerbitzuek, Espainiako Gobernuak EAEn duen Ordezkaritzak, segurtasun-indar eta -kidegoek, eta hamaika GKEk (Caritas, CEAR Euskadi, Munduko Medikuek, HIESaren aurkako Batzordea, Gurutze Gorria, Gizarterako, Aukera, Save the Children, Askabide, Oblatas eta Accem).

2021eko irailaren 22an, Mahaiaren Osoko Bilkuraren bilera bat egin zen, aurrez aurre eta telematikoki. Bertan, 2022rako lehentasunezko ekintzen proposamena aztertu zen, pertsonen salerosketaren aurka borrokatzeko estatu-estrategiaren lehentasun eta neurriekin bat etorrira (autonomia-erkidegoek betetzekoak).

Gainera, 2021ean, Pertsonen Salerosketa Mahaiaren ekintza-planaren barruan, 2020an hasitako lanarekin jarraituz, adierazle komunen dokumentu bat egin da segurtasun-indar eta -kidegoek eta erakunde espezializatuek pertsonen salerosketa-kasuak detektatzeko.

Era berean, Emakundek online prestakuntza-jardunaldi hau antolatu zuen:



Emakumeen eta neskatoen salerosketaren aurkako mahai.



- 2021/04/26: Lluís Ballester, «La problemática en la detección e intervención con las víctimas de Trata, ante el fenómeno de la deslocalización de la prostitución». Ondoren, online espazio bat prestatu zen, bi hilabetez pertsonen salerosketaren biktimak detektatzean eta haiekin esku hartzean espezializatutako erakundeek eta segurtasun-indar eta -kidegoetako unitate espezializatuek Ballester doktoarekin kontraste-gune bat izan zezaten.

## 8.11. Erakundearteko lankidetzaz-ildoak eta -proiektuak

### GENERO-INDARKERIAKO EGOERAK EGIAZTATZEKO PROZEDURAK

2019an, Emakundek gidatuta, oinarriko gizarte-zerbitzuekin eta Eudelekin lan-prozesu bat abiatu zen, genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeko<sup>18</sup> judizioz kanpoko prozeduraren inguruan (gaikuntza-titulua).

2020an hausnarketa-prozesuari jarraipena eman zitzaion, eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak, Lanbidek eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzu espezializatuek parte hartu zuten. Emakumeen aurkako indarkeria matxista baloratzeko baliabide bat egitea erabaki zen, irizpideak adosteko eta foru-aldundiei erakunde egiaztatzaile gisa egin dezaketen zeregina errazteko.

2021ean, Emakumeen aurkako indarkeria matxista baloratzeko tresnaren inguruko lanari eutsi zaio, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin

elkarlanean, indarkeria-egoeren egiaztatpena gizarte-zerbitzu espezializatuetara zabaltzeko helburuz.

Azkenik, «2021eko abenduaren 2ko Ebazpenak, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarenak, genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeari buruzko 2021eko azaroaren 11ko Berdintasuneko Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratzen duenak» kontuan hartu beharreko hainbat gai jasotzen ditu, Emakunden eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzan aztertzen ari direnak.

Orobat, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak kudeatzen duen Gaikuntza Titulurako eta biktima-izaera egiaztatzeko talde teknikoan parte hartzen jarraitzen dugu. Ekarpenguztiak Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin adostuta egiten dira, hura baita, behin-behinean, EAEko organo egiaztatzailea.

### POLIZIA KOORDINATZEKO PROTOKOLOAK

Emakunde ordezkatuta dago Ertzaintzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoaren arteko koordinazio-protokoloak berrikusteko proiektuaren jarraipen-taldean. Zehazki, 2020ko abenduaren 3an (osteguna) egindako hasierako bileran parte hartu zuen, eta bertan azaldu ziren proiektuaren edukiak eta epeak, baita polizia-koordinazioaren berrikuspenaren aurretiko azterketako gaiak ere.

2021ean jarraipen-talde horretan parte hartzen jarraitu da, eta horren emaitza protokoloa egin aurreko azterlana izan da. Gainera, 2021-2024 aldirako polizia-koordinaziorako protokoloa eta ezarpen-plana prestatu dira, prestakuntzarako oinarrien proposamenak barne.

18. Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko presazko neurriei buruzko 2018ko abuztuaren 8ko Errege lege-dekretutik eratorria.



**BESTELAKO KOLABORAZIOAK**

- **BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA:** Emakunde Gipuzkoako Genero Indarkeriaren Koordinaziorako Probintzia Batzordeen talde teknikoaren bileretan izan da urteko lehen sei hilekoan; bilerok Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak antolatu ditu urtarrilaren 27an, otsailaren 24an, apirilaren 28an eta maiatzaren 26an. Gainera, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak genero-indarkeria koordinatzeko antolatzen duen Bizkaiko Probintzia Batzordeko kide da Emakunde.
- **BIZKAIKO BEHATOKIA:** Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Indarkeria Matxistaren Behatokian parte hartzen du Emakundek.





## 9. BERDINTASUN-ESKUBIDEEN DEFENTSA SEKTORE PRIBATUAN




Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legean ezarritako funtzioen eta mugen arabera, Emakunderi dagokio sektore pribatuan berdintasunaren eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ezaren printzipioa defendatzea, eta honako jarduera hauen bidez gauzatzen da:

- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexen prozedurak.

## 9.1. Aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza

Emakunderen Defentsa Bulegoak herritarrei arreta zuzenean eta aurrez aurre ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Bertan jasotzen diren aurrez aurreko aholkularitzez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere jasotzen dira.

2021ean zehar, herritarren arretarako berehalako 230 zerbitzu eman dira, guztira<sup>19</sup>. Horietatik gehienak (% 50) dibortzioei, banantzei, zaintzei eta mota askotako gatazkei buruzkoak dira (auzokideen erkidegoa, lagunak...); gai horietan emakume bat izan da eskaeraren titularra, baina ez dira Emakunderen jardun-eremuaren eskumenekoak. Lan-esparruko galderak % 27 izan dira, batez ere familia-etxeko zerbitzuari buruzkoak. Azkenik, genero-indarkeriaren inguruko aholkularitzak zenbatu dira (eskaeren % 23).



Berdintasuna-eskubideen defentsa sektore pribatuan.

19. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Berdintasun-eskubideen Defentsaren Arloko jardueren memoria.



## 9.2. Aholkularitza-kontsultak eta kexen kudeaketa

2021. urtean, guztira 58 kontsultari erantzun zaie idatziz. Eskaera horiek aipatzen dituzten arazoien artean, 47 lan-esparrukoak dira; kontsulta gehien izan duen hurrengo esparrua «Beste batzuk» izan da. Azken esparru horretan emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloari ez dagozkion gaiak planteatu dira, baina, hala ere, idatzizko orientabideak eta aholkua jaso dituzte eskaera horiek ere. Zerbitzuen eremuan 2 aholkularitza-eskaera jaso dira; bat arlo asoziatiboari buruzkoa.

Halaber, 52 kexa-prozedura kudeatu dira 2021ean. Espediente guztietatik, 16 gomendio bidali dira, guztiak emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatu eta bermatzeko proposamenetan oinarritutakoak. 28 espediente beste erakunde batzuetara bideratu dira; eta horietatik, 10 Madrilgo Emakumeen Institutuko Emakumeen Irudiaren Behatokia bideratu ziren publizitateari edo komunikabideei buruzkoak izategatik. Gainera, 10 kexa bidali zaizkio Arartekoari; 4 beste administrazio publiko batzuei, berdintasunerako teknikarien bidez; 1 Lan Ikuskaritzari; eta 2 Fiskaltzari. Gainera, 6 eskaera artxibatu dira; bi planteatutako gaia sexuan oinarritutako diskriminazioaren esparruan sartzen ez zelako, eta kasu batean eskaera bidali dutenek ikerketa-prozedura bat hasi ahal izateko eskatu zaien informazio gehigarria bidali ez dutelako. Azkenik, 3 espediente izapidetze-aldian daude oraindik.

	2021
<b>Herritarren berehalako arretarako zerbitzuak</b>	<b>230</b>
- Lan-esparrua	62
- Indarkeria	53
- Beste batzuk	115
<b>Idatzizko kontsultak</b>	<b>58</b>
- LAN-EREMUA	47
- Beste batzuk	8
- Zerbitzuen esparrua	2
- Elkarleen esparrua	1
<b>Kexen kopurua</b>	<b>52</b>
- Publizitatea eta komunikabideak	20
- Lan-esparrua	17
- Zerbitzuak	8
- Beste batzuk	6
- Asoziatiboa	1





## 10. PRESTAKUNTZA BERDINTASUNAREN ARLOAN



Profesionalen prestakuntza oinarrizko estrategia da generoarekin sentikorrek diren politikak garatzeko. Hori dela eta, prestakuntza lan-eremu garrantzitsua da Emakunderentzat, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen erregulazioak eta Berdintasun Planaren artikulazioak jasotzen dutenez.

2021ean, aurrera egin nahi izan da Emakundek eskaintzen duen prestakuntzan. Horretarako, online prestakuntzako web-atari instituzional bat proposatu da, prestakuntza-eskaintza integral bat diseinatzeko eta, horren bitartez, dagoen prestakuntza modu estrategikoan bateratzeko, eta Emakunden genero-berdintasunari buruzko proposamen berriak sartzeko.

2021ean, prestakuntza-atariak gain, Emakundek udako ikastaro bat eta beste hainbat prestakuntza-jardunaldi antolatu ditu.

## 10.1. UPV/EHUko udako ikastaroa

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen esparruan, ekainaren 24an eta 25ean, Emakundek «Bizitzaren zaintza erdigunean jarriko duen gizarte baterantz urratsak» izeneko ikastaroa antolatu zuen Donostiako Miramar Jauregian.

Ikastaroaren helburuak hauek izan ziren: Zaintzaren eredu birpentsatzea, feminismoaren ekarpenetan eta publikoaren eta pribatuaren arteko erantzukidetasunaren ikuspegian oinarrituta; eredu ekonomiko eta soziala aztertzea, bizitzaren zaintza sistemaren erdigunean egon dadin; eta zaintzaren aldeko itun kolektiboak sustatzeko edo sendotzeko estrategia berriak identifikatzea eta/edo pentsatzea.

Honako ikastaro hauek eman ziren: «Kontzeptutik praktikara: zaintzaren erronka politika publikoetan», Maria Ángeles Durán Heras; «Zaintzak erdigunean: ziurtasun batzuk, zenbait zalantza eta potentzia handia»,

Amaia Pérez Orozco; «EAEko adinekoren zaintzen inguruko hausnarketa», Mertxe Larrañaga Sarriegui; «Bizitzaren sostengarritasuna praktikan: korapiloak eta tresnak plazara», eta «Zaintzaren arkitekturak eta zaharalduntze prozesuak plazara» Irati Mogollón García; «Zaintzarik gabe, aktibismorik ez. Autozaintzako, zaintza kolektiboko eta sanazioko esperientziak praktika feministetan», Daniela Fontaine López; «Ondo bizitzeko zaintzen pedagogia lantzea», Olga García Martínez.

Halaber, bi mahai-inguru egin ziren, izenburu hauekin: «Zaintzak erdigunean jarri. Nola?», Maria Ángeles Duran, Amaia Pérez Orozco eta Mertxe Larrañaga Sarrieguiren parte-hartzearekin; eta «Zaintzarako praktikak batera sortzen», Irati Mogollón García, Daniela Fontaine López, Olga García Martínez, Alaitz Berganza Ormazabal eta María Teodocia Juncay Morochoren parte-hartzearekin.



UPV/EHUko Udako Ikastaroa.



## 10.2. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldiak

Udako ikastaroen, Gizonduz ekimenaren eta Jabetuz programaren bidez egindako prestakuntza-eskaintzaz gain, Emakundek, 2021ean, prestakuntza- eta/edo sentsibilizazio-jardunaldi hauek antolatu ditu hainbat erakunde eta talderentzat:

EMAKUMEEEN OSASUNERAKO NAZIOARTEKO EKINTZA EGUNA 2021  
DÍA INTERNACIONAL DE ACCIÓN PARA LA SALUD DE LAS MUJERES 2021

**DESIGUALDADES DE GÉNERO EN LA ATENCIÓN SANITARIA. EL CASO DE LA COVID-19**

**MARÍA TERESA RUIZ CANTERO** Maiazak 27 de mayo  
**ZOOM** 12:00-13:00

EMAKUNDE

izaskun Landaia Larzgoitia

María Teresa Ruiz Cantero

Hitzaldia: genero-desberdintasunak osasun-arretan.

JARDUNALDIA	DATA	IZENBURUA
Nahiko jardunaldiak	2021-02-26	«Hezkidetzeta ikuspuntutik komunikabideak»
	2021-03-11	«Ikasle mutil berdinzaleak hezteko erronka»
	2021-05-14	«Quererse bien: herramientas para disfrutar del amor del bueno»
	2021-05-18	«Euskararen erabilera ez sexistarako gakoak eta proposamenak»
	2021-11-19	«Con ojos de niña y con ojos de niño: la mirada coeducativa del profesorado»
Gizonduz jardunaldiak	2021-05-18	«El papel de los hombres con cargos públicos en la promoción de la igualdad»
	2021-11-24	«Declaraciones, discursos y acciones de los hombres con cargos políticos ante la violencia machista»
	2021-06-10	«Los hombres, la igualdad y las políticas de igualdad»
	2021-10-14	«Identidad masculina, poder, formas de liderazgo y el papel los hombres en la igualdad»
	2021-12-03	«Enpresetan kontziliazio erantzukiderako eta zaintzako maskulinitateak sustatzeko praktika hobeak»
Enpresen jardunaldiak	2021-02-25	«Genero-ikuspegidun lan-osasuneko eta lan-baldintzetan aurrerapenak»
	2021-10-22	«Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak»
	2021-12-16	«Bidea egiten»
	2021-12-17	«Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako enpresen protokoloen testuingurua eta alderdi praktikoak»
Begira jardunaldiak	2021-06-30	«Nola komunikatu emakumeen aurkako sexu-indarkeriako kasuetan»
	2021-11-18	«Nola hobetu publizitate-sormena genero-ikuspegiarekin»

JARDUNALDIA	DATA	IZENBURUA
Jabetuz jardunaldia	2021-11-23	«Adineko emakumeak, boteretsuak indarkeriaren aurrean»
Osasun jardunaldia	27/05/2021	«Genero-desberdintasunak arreta sanitarioan. COVID-19aren kasua» <sup>20</sup>



Jabetuz jardunaldia.

### 10.3. Lankidetzaz IVAPekin

Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileen berdintasunari buruzko aholkularitza ematen eta zeharkako prestakuntzaren garapenean laguntzen jarraitu da: prestakuntza-eskaintzaren diseinua, prestakuntza-premia berrien identifikazioa eta ikastaro berrien proposamenak.

Gainera, prestakuntza-ikastaro hauek ematen lagundu da:

- «Proiektuetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikastaroa» (bi edizio)
- «Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa» (edizio bat)

### 10.4. Lankidetzaz-ildoak unibertsitateekin

Unibertsitateekin lankidetzaz aritzea funtsezkoa da unibertsitate-sisteman berdintasuna sustatzeko, baita unibertsitateko ikasketetan eta ikerketan genero-ikuspegia txertatzeko ere.

Ildo horretan, Emakunde lankidetzaz aritzen da Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Berdintasun Zuzendaritzarekin eta EAEko unibertsitateetako beste berdintasun-zerbitzu batzuekin, interes komuneko proiektu eta ekimenetan. Helburu nagusia da unibertsitate-komunitatea berdintasun gaitan trebatzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen dieten eta esku-hartze sozialean parte hartzen duten berdintasun-agenteen eta bestelako profesionalen prestakuntza espezializatua ziurtatzeko.



2021ean honako lankidetzak hauei eutsi zaie:

JARDUKETAK	DESKRIBAPENA
BERDINTASUNARI BURUZKO ONLINE PRESTAKUNTZA- IKASTAROAK	2018an UPV/EHUrekin sinatutako lankidetzak hitzarmenaren esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko online ikastaroaren 4 edizio, baita gizonen, berdintasunari eta maskulinitatei buruzko ikastaroaren 4 edizio ere, berdintasun-politikak eta prestakuntza-ekintzak batera sustatzeko. 368 pertsonak gainditu dituzte ikastaro horiek (301 emakume eta 67 gizon).
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN GAINEKO MASTERRA	UPV/EHUK antolatutako «Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasuna» Masterrarekin elkarlana, profesionalak berdintasunerako eragile gisa lan egin dezaten gaitzeko, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzak hainbat ekintzaren bidez zehaztu da: dirulaguntza izendun bat emanez, irakaskuntzan parte hartuz (hiru irakasgai eta aurrez aurreko saio bat eman dira) eta Emakunden praktikak egitea ahalbidetuz, hain zuzen.
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEKO MASTERRA	Deustuko Unibertsitateko Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko unibertsitate-master ofizialaren garapenean ere lankidetzan aritu gara; ikasleentzako 16 beka (guztiak emakumeak) eta prestakuntza-saio bat.
GENERO, MASKULINITATE ETA GIZARTE- EKINTZAREN ARLOKO UNIBERTSITATE-ESPEZIALISTAREN TITULUA	Irakasle-lanak Euskal Herriko Unibertsitateak eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak elkarlanean garatu duten generoari, maskulinitatei eta gizarte-ekintzari buruzko unibertsitatearteko espezializazio-tituluan.
MASKULINITATE, GENERO ETA BERDINTASUNAREN ARLOKO UNIBERTSITATE-ESPEZIALISTAREN GRADUONDOKO TITULUA	Maskulinitate, genero eta berdintasunaren arloko unibertsitate-espezialistaren graduondoko tituluan irakasle lanak, Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatean.

JARDUKETAK	DESKRIBAPENA
JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOA	EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin elkarlana, kasu errealak, ezagutzak eta esperientziak eskainiz, ikasleek prestakuntza praktikoa eskura dezaten diskriminazioaren aurkako legediari eta berdintasun-eskubideak defendatzeari dagokienez. Halaber, Zuzenbide Graduko ikasleek derrigorrezko praktikak Emakunden egiteko laguntza.
EKONOMIA FEMINISTAREN VII. KONGRESUA	UPV/EHUren Ekonomia Feministari buruzko VII. Kongresua antolatzeko laguntza ekonomikoa, «Bizitzaren saregileak: sare feministak ekonomiaren oinarriak astintzeko».
EMAKUME TEKNOLOGOAREN ADA BYRON SARIA	Deialdia antolatzeko laguntza ekonomikoa eta Ada Byron Sariaren epaimahaiaren parte-hartzea, teknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortu eta ikusgarri egiteko. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta emakumeek ekarpen handiak egiten dituzten hainbat eremutan. Helburua da saria jasotzen duten emakumeak gaur egungo neska gazteentzat eredu eta pizgarria izan daitezela eta bokazio teknologikoak areagotu daitezela.
ETORKIZUNEN LIDERREN PRESTAKUNTZA-PROGRAMA	Agirre Lehendakaria Centerrek, UPV/EHUK New Yorkeko AC4-Columbia Universityrekin lankidetzan sortutako Gizarte Berrikuntzako Laborategiak, antolatutako etorkizuneko liderren prestakuntza-programan bi hitzaldi.





## 11. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AZTERLAN ETA IKERKETAK



Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak eta horien eragina aztertzea. Izan ere, horrela bakarrik diseinatu eta gauzatu ahal izango dira berdintasunik ezak zuzentzeko politika egokiak, baita berdintasunik ezeko egoera eta modu berriak hauteman eta prebenitzekoak ere. Horretarako, Emakundek txostenak, gidak eta bestelako materialak egiten ditu bere argitalpen-lerroaren bidez, eta dokumentazio-zentro bat ere badu. Emakundek, halaber, genero-ikuspegidun ikerketa sustatzen du eta hura zabaltzen laguntzen du, ikerketa-beken eta argitalpen-lehiaketaren bidez.

## 11.1. Txostenak eta azterlanak

### EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak

Urteko Zifrak txostenari esker, EAEko eremu sozial, ekonomiko eta politikoetan emakumeek eta gizonak bizi duten errealitatearen ikuspegi globala lortzen da, bai unean unekoa, bai eboluziozkoa. Haren helburua da genero-desberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazle eguneratuak eta garrantzitsuak administrazio publikoen eskura jartzea, eta horiek ezabatzeri bideratutako neurriak eta estrategiak har daitezela erraztea. Xede nagusi horrekin batera, txostenak agente sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza-arloko agenteak genero-berdintasunari buruz sensibilizatzea du helburu.

Zifrak txostenak eskuragarri dagoen informazio estatistiko ofizial eguneratuena bildu eta aztertu du, batez ere Eustatek eta beste estatistika-institutu batzuek (hala nola Espainiako Estatistika Institutuak eta Eurostatek) arlo hauetarako sortutakoa:

## 11. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AZTERLAN ETA IKERKETAK

1. Demografia
2. Hezkuntza
3. Lana
4. Baliabide ekonomikoak eta sozialak
5. Osasuna
6. Parte-hartzea
7. Emakumeen aurkako indarkeria



Zifrak txostena.



### EAEko soldata-arrakalari buruzko txostena

Txostenak Euskal Autonomia Erkidegoko soldata-arrakalari buruzko datuak aurkezten ditu, Espainiako Estadística Institutuak 2020an argitaratutako Soldata Egiturari buruzko Inkestatik abiatuta. Soldata-arrakala kalkulatzeko, urteko batez besteko irabaziak eta lanordu arrunteko irabaziak hartzen dira oinarri. Soldata-arrakala aztertzeke honako adierazle hauek hartu dira kontuan: jarduera-sektorea, okupazioa, kontratu mota, adina eta nazionalitatea.

Soldata-arrakala da emakumeek lan-merkatuan pairatzen duten desberdintasunik argienetako bat, baina, bestalde, zaila da ulertzea; izan ere, arazo egiturazko eta dimentsio anitzekoa da, eta hortaz, horri heltzeko, inplikaturako eragile eta eremu guztiek erantzun integrala eman behar da.

### Estudio sobre la pobreza e higiene menstrual en la CAE

Txosten honek Eusko Legebiltzarrak eskatuta egindako azterlan baten emaitzak biltzen ditu. Azterlan horren bidez, pobrezia eta higiene menstrualari buruzko ezagutza zabaldu nahi izan da EAEko testuinguru espezifikoa, betiere, ikuspegi integral eta interseksionala oinarri hartuta. Txostenaren helburu nagusiak dira pobrezia menstrualean eragiten duten faktoreak identifikatzea, EAEn duen irismena balioestea eta gaur egun ematen ari zaion erantzuna ezagutzea, betiere arazoaren eragina minimizatzeke gomendioak proposatze aldera.

Azterlana egiteko, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzeko hainbat teknika konbinatu behar izan dira, dokumentuak berrikusteko eta estatistika-iturriak kontsultatzeko lanaren osagarri gisa. Zehazki, elkarrizketa sakonak egin zaizkie pobrezia menstrualaren gaia zehatz-mehatz landu eta ezagutzen duten adituei eta Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeetako arduradunei, haiek badakitelako EAEko

gizarte-erakundeak zer-nolako erantzuna ematen ari diren pobrezia menstrualaren aurrean. Halaber, inkestak eta eztabaida-talde bat ere egin dira egoera ahulenean edo bazterkeria-arriskuan dauden emakumeekin; izan ere, emakume horiei eragiten die gehien arazo honek.



Soldata-arrakalari buruzko txostena.



Pobrezia eta higiene menstrualari buruzko azterlana EAEn.



## 11.2. Ikerlanetarako bekak

Genero-ikuspegia ikerketa-jardueran txertatzen eta sektore guztietako profesionalak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan prestatzen laguntzeko, Emakundek prestakuntza-beken 3 deialdi egiten ditu urtero 2010etik, berdintasunaren arloko ikerketa-lanak egiteko.

2021erako deialdiak 69.999 milioi euroko aurrekontua izan zuen. Guztira, 53 beka-eskaera aurkeztu zituzten: 26 lehenengo motarako, 17 bigarren motarako eta 10 hirugarren motarako. Eskaeren kopuru osotik, deialdian 140 parte hartzaile baino gehiago izan dira. Balioespenak egin eta elkarrizketa egokiak egin ondoren, hiru bekak esleitu ziren eta horien segimendua egin zen, horretarako ezarritako bileren egutegiaren bidez. Gaur egun, 16 pertsona ari dira prestatzen (14 emakume eta gizonetzko 2), eta honako gai hauek landuko dira esleitutako beken bidez:

BEKA MOTA	EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
1. beka	Taldea: María Teresa Campos (Kordinatzailea)	EAEko ondare arkeologikoaren irakurketa feminista: berdintasuna historian, genero-ikuspegiari esker	23.333 €
2. beka	Taldea: Iratxe Herrero Zarate (Kordinatzailea)	Genero-indarkeria eta adineko emakumeak Euskal Autonomia Erkidegoan: indarkeria opakua ikusgai egiten	23.333 €
3. beka	Taldea: Patricia Martínez García (Kordinatzailea)	Hezkuntza-arloko ikerketa eta ekintza, genero-desberdintasunak era kooperatiboan agerian jarri eta kudeatzeko	23.333 €

2020ko beken deialdiari dagokionez, beka mota guztiak 2021ean amaitu ziren, aurreikusitakoaren arabera. Hautaketa-batzordeak ikerlanak aztertu ditu, eta egokia izan da guztien emaitza.

Gainera, 2021eko otsailean, apirilean eta uztailean 2019ko ekitaldiko hiru bekei dagokien prestakuntzaren ondoriozko ikerketak aurkeztu zaizkie hedabideei:

- «¿Encuentran las mujeres obstáculos para acceder y mantenerse en los recursos de tratamiento de adicciones?»



Ikerketa-lanerako bekaren aurkezpena.





Ikerketa-lanerako bekaren aurkezpena.



Ikerketa-lanerako bekaren aurkezpena.

- «Participación de mujeres racializadas en movimientos migrantes y feministas en Euskadi: narrativas, estrategias y resistencias»
- «Arquitectas (in)VISIBLES en Euskadi. La problemática que esconde esa invisibilización». Ikerlanak Emakunderen webgunean argitaratu dira, horien zabalkundea bultzatzeko.

### 11.3. Argitalpenen lehiaketa

Profesionalek eta gizarte-eragileek egindako ikerketen argitalpena eta zabalkundea sustatzeko eta bultzatzeko, 2013an argitalpen-lehiaketa bat sortu zen. Horren bidez, berdintasunaren arloko ikerketa-lanak nabarmendu eta ikusgarri egin nahi ziren, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta posizio bereziak eta bizi-eremu desberdinetan dauden genero-harremanak hobeto ezagutzen laguntzeko.

Helburu horrekin, 2021eko martxoaren 25ean, 2020an Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko VIII. lehiaketa ebatzi zen, eta bete gabe utzi.

Bestalde, 2021eko urrian, 2021ean Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko IX. lehiaketaren deialdia egin zen, eta datorren ekitaldian ebatziko da.



## 11.4. Argitalpenak

2021ean, argitalpen hauek egin dira:


MOTA	ARGITALPENA	BERTSIOA
46. txostena	«Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategiak»	Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean dago.
Txostena	«Nork zaintzen du? Zaintzen gizarte-antolaketari buruzko ekarpenak»	Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean dago.
Txostena	«Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak: Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen etxeekin egindako proiektua»	Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean dago. 900 ale paperean
Gida	«Protokoloa, lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko dena» (Eguneratzea)	Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean dago.
Gida	«Nola komunikatu emakumeen aurkako sexu-indarkeriako kasuetan»	Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean dago.
Gida	«Nola hobetu publizitate-sormena genero-ikuspegiarekin»	Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean dago.
Laburpena	Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketa Euskadin: beharrak eta proposamenak	Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean dago.
Dosierra	«Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundearteko I. Akordioa» onartu zenetik 20. urte: egindako bidea	Bertsio elektronikoko elebiduna Emakunderen webgunean dago.



46. txostenaren aurkezpena.




Txostena: "Nork zaintzen du?"



Txostena: "Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak."






Jazarpeneren aurkako protokoloa.



Txoxena "Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketa Euskadin: beharrak eta proposamenak". Laburpena.



